

Arabako Lurralde Historikoko  
Gizarte Zerbitzuen  
Foru Sarean sartutako  
**Adinekoentzako  
Zentroen**  
Oinarrizko Estatutua



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)



Arabako Lurralde Historikoko  
Gizarte Zerbitzuen  
Foru Sarean sartutako

# Adinekoentzako Zentroen

Oinarrizko Estatutua

Foru Gobernu Kontseiluaren 8/2017 Foru Dekretua, otsailaren 28koa, onartzen duena lurralde historiko honetako gizarte zerbitzuen foru sareko adinekoen zentroetako oinarrizko estatutua, eta indargabetzen duena otsailaren 20ko 19/2001 Foru Dekretuaren bidez onartutakoa



▶ Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava  
▶

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

# Aurkibidea

## **I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua	Xedea eta aplikazio-eremua .....	7
2. artikulua	Zedarriztapen kontzeptuala, helburuak eta motak.....	7
3. artikulua	Jarduketa-printzipioak eta arreta-eredua .....	9

## **II. TITULUA ERABILTZAILEEN ETA PROFESIOALEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

### **I. KAPITULUA ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

#### **1. atala Erabiltzaileen eskubideak**

4. artikulua	Eskubideen zerrenda .....	10
5. artikulua	Duintasunerako eskubidea .....	11
6. artikulua	Pribatutasunerako eskubidea.....	12
7. artikulua	Autodeterminaziorako eskubidea.....	13
8. artikulua	Autonomiarako eskubidea.....	14
9. artikulua	Hautatzeko eskubidea .....	15
10. artikulua	Norberaren gogobetetasunerako eta errealizaziorako eskubidea.....	16
11. artikulua	Norberaren eskubideak ezagutzeko eta defendatzeko eskubidea.....	17

#### **2. atala Erabiltzaileen betebeharrak**

12. artikulua	Betebeharren zerrenda .....	18
13. artikulua	Araudia betetzea.....	19
14. artikulua	Bizikidetasun-arauak betetzea .....	19
15. artikulua	Pertsonak errespetatzea .....	19
16. artikulua	Instalazioak errespetatzea.....	19
17. artikulua	Anomalien eta irregulartasunen berri ematea .....	20
18. artikulua	Prezio publikoa ordaintzea .....	20
19. artikulua	Banakako arretako plana (BAP) betetzea.....	20

### **II. KAPITULUA PROFESIOALEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

#### **1. atala Profesionalen eskubideak**

20. artikulua	Eskubideen zerrenda .....	20
21. artikulua	Duintasunerako eskubidea .....	20

## ADINEKOENTZAKO ZENTROEN OINARRIZKO ESTATUTUA

22. artikulua	Berdintasunerako eskubidea .....	21
23. artikulua	Prestakuntza.....	21
24. artikulua	Partaidetza .....	21
25. artikulua	Zerbitzuaren kalitatea .....	21

### **2. atala**      *Profesionalen betebeharrak*

26. artikulua	Betebeharren zerrenda .....	22
27. artikulua	Pertsonak errespetatzea .....	22
28. artikulua	Araudia betetzea.....	23
29. artikulua	Bizikidetasun-arauak betetzea .....	23
30. artikulua	Instalazioak errespetatzea.....	23
31. artikulua	Komunikatzeko eginbearra.....	23

### **III. TITULUA**      **ADINEKOEN ZENTROETARAKO SARBIDEA**

32. artikulua	Adinekoentzako zentroetarako sarbidea .....	24
33. artikulua	Baimena.....	24
34. artikulua	Ustezko ezintasuna egoitza batean sartu ondoren .....	24
35. artikulua	Adinekoentzako zentroetan sartzea .....	25
36. artikulua	Egokitze-aldia .....	26
37. artikulua	Erabiltzaile-izaera .....	26
38. artikulua	Barne-araubideko araudia .....	26
39. artikulua	Informazio-liburuxka .....	27

### **IV. TITULUA**      **ANTOLAKETA- ETA FUNTZIONAMENDU-EGITURA**

#### **I. KAPITULUA**      **ZENTROEN ZUZENDARITZA**

40. artikulua	Erantzukizunen esleipena.....	28
41. artikulua	Funtzioak .....	28

#### **II. KAPITULUA**      **ERABILTZAILEEK TALDEAN PARTE HARTZEKO ORGANOK**

42. artikulua	Erabiltzaileen partaidetza.....	28
43. artikulua	Taldean parte hartzeko organo-motak.....	29

#### **1. atala**      *Erabiltzaileen batzarra*

44. artikulua	Osaera .....	29
45. artikulua	Bileren aldizkakotasuna eta deialdia.....	29
46. artikulua	Batzarraren eraketa eta erabakiak hartzea .....	29
47. artikulua	Funtzioak eta ahalmenak.....	30

#### **2. atala**      *Gobernu batzarra*

48. artikulua	Osaera .....	30
49. artikulua	Ordezkarien hautaketa.....	31

50. artikulua	Hauteskundeen deialdia .....	31
51. artikulua	Bileren aldizkakotasuna eta deialdia.....	32
52. artikulua	Gobernu batzarraren eraketa eta erabakiak hartzea .....	32
53. artikulua	Gobernu batzarraren funtzioak eta ahalmenak.....	32
54. artikulua	Gobernu batzarreko lehendakariaren funtzioak.....	33
55. artikulua	Gobernu batzarreko idazkariaren funtzioak.....	33
56. artikulua	Gobernu batzarreko kideen funtzioak.....	33
<b>3. atala      Senideen batzarra</b>		
57. artikulua	Senideen batzarra.....	34
<b>4. atala      Erabiltzaileen eta senideen batzarrak</b>		
58. artikulua	Osaera eta funtzioak .....	34
<b>V. TITULUA      BANAKA PARTE HARTZEKO BIDEAK</b>		
59. artikulua	Kontsultatzeko eginbeharra.....	34
60. artikulua	Iradokizunak eta kexak formalki aurkeztu aurretiko bideak .....	35
61. artikulua	Iradokizunen eta kexen araubidea.....	35
<b>VI. TITULUA      ARAU HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ARAUBIDEAK</b>		
62. artikulua	Arau hausteen eta zehapenen .....	36
<b>I. KAPITULUA      ARAU HAUSTEAK</b>		
63. artikulua	Kontzeptua .....	36
64. artikulua	Arau hauste arinak.....	36
65. artikulua	Arau hauste astunak.....	36
66. artikulua	Arau hauste oso astunak.....	37
67. artikulua	Berrerortzea .....	37
<b>II. KAPITULUA      ZEHAPENAK</b>		
68. artikulua	Zehapen-motak.....	37
69. artikulua	Neurri osagarriak.....	38
70. artikulua	Zehapenen mailaketa.....	38
71. artikulua	Litezkeen kalteengatiko erantzukizuna .....	38
72. artikulua	Preskripzio-araubidea .....	38
<b>III. KAPITULUA      ZEHAPEN-PROZEDURA</b>		
73. artikulua	Arau orokorrak .....	39
74. artikulua	Batzordeak jokabidea egiaztatzea eta haren izaera eta larritasuna zehaztea .....	39
75. artikulua	Zehapenak aplikatzea .....	39

## ADINEKOENTZAKO ZENTROEN OINARRIZKO ESTATUTUA

76. artikulua	Jurisdikzio-ordena penalarrekiko harremanak.....	40
77. artikulua	Errekurtsoak .....	40
78. artikulua	Zehapenak bete beharrekoak izatea.....	40
79. artikulua	Zehapenen erregistroa eta publikotasuna.....	40

### XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen xedapen gehigarria. Datuen babesa.....	41
Bigarren xedapen gehigarria. Barne-araubideko araudien onespena.....	41

<b>XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA</b> .....	41
--	----

### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Ordezko araubidea .....	41
-------------------------------------	----

<b>ERANSKINA</b>	<b>ADINEKOENTZAKO ZENTROETAKO GOBERNU BATZARREAN ORDEZKARIAK HAUTATZEKO HAUTESKUNDE-ARAUDIA</b> .....	43
------------------	---	----

## I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### **1. artikulua - Xedea eta aplikazio-eremua**

**1.** Estatutu honek jarduketa-printzipioak, erabiltzaileen eta profesionalen eskubideak eta betebeharrak eta gizarte-zerbitzuen foru-sarean sartutako adinekoentzako zentroek beren funtzionamenduan men egin behar dieten antolaketara-erakundeak ezartzen ditu.

Horretarako, eta Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 22ko 36/2014 Foru Dekretuak (arautzen duena mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere; aurrerantzean, 36/2014 Foru Dekretua) 1.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako zerbitzuak joko dira gizarte-zerbitzuen foru-sarean sartutakotzat, bai zuzeneko kudeaketako araubidean emanak bai erakunde pribatuekiko itun-, hitzarmen- edo kontratu-araubidean emanak.

**2.** Estatutu hau ezingo zaie aplikatu Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak beste erakunde publiko batzuekin itundutako plazei; izan ere, horiek aipatutako erakunde publikoek adinekoen zentroetarako ezartzen duten antolaketa- eta funtzionamendu-araubidearen menpe egongo dira.

**3.** Estatutu honetan jasotako xedapenak autonomia-erkidegoko araudian adinekoentzako zentro-mota guztietarako hizpatutako betekizun materialen, funtzionalen eta langileei buruzko betekizunen osagarriak izango dira, zehatz-mehatz, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuari, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuei buruzkoari, eta urriaren 17ko 202/2000 Dekretuari, laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroi buruzkoari, dagokienez.

### **2. artikulua - Zedarriztapen kontzeptuala, helburuak eta motak**

**1.** Gizarte-zerbitzuen foru-sarean sartutako adinekoentzako zentroak mendetasuna aitortuta duten, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko muga fisiko edo psikiko handiak dituzten eta beren ohiko ingurunean laguntza-beharrak egokiro bete ezin dituzten adinekoentzako gizarte-zerbitzuen establezimenduak dira.

**2.** Hauek dira haien helburu orokorrak: arreta jasotzen duten pertsonen beren garapen pertsonalerako egokia den bizikidetzagiroa eskaintzea, haien ongizate fisiko, psikiko eta soziala mantentzen eta hobetzen laguntzea, eguneroko

bizitzako jarduerak egiteko laguntza egokienak eskaintzea eta gizarte-bizitzan integratzea eta parte hartzea sustatzea.

**3.** Gizarte-zerbitzuen foru-sarean sartutako adinekoentzako zentroak, haien xedea eta ezaugarriak kontuan hartuta, honela sailkatzen dira: eguneko zentroak, gaueko zentroak eta egoitza-zentroak. Estatutu honen ondorioetarako, eta urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, jasotzen dituen xedapenekiko koherentziari eusteko, horrelako zentroak definizio hauekin bat datoz:

a) Mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako eguneko zerbitzuak edo zentroak, aldi baterako edo modu iraunkorren, mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta indibidualizatua eta integrala eskaintzen diete egunez, haien autonomia pertsonalaren mailari eusteko, muga funtzionalak konpentsatzeko eta ohiko zaintzaileei laguntzeko, prebentzioko, gaikuntzako eta asistentziako prestazioen bitartez. Prestazio horiek gaitzera eta gaitasunak garatzera bideratuta daude autonomia pertsonala lortzeko eta komunitate-ingurunean parte hartzeko.

b) Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko gaueko zentroa edo zerbitzua mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko baliabidea da; pertsona horiek, hainbat arrazoi direla-eta (batik bat, jatorri psikikoko edo neurologikoko arrazoiengatik), intentsitate ertain edo handiko gainbegiratzea behar izaten dute gauez loaren erritmoa eta gaueko portaera kontrolatu eta erregulatzeko, baina ohiko zaintzaileek ezin diete gainbegiratze hori etxean eskaini. Familiei babesak ematea du xede, zaintza egokia emateko gaitasuna hobetzearen eta, hartara, familia barruko dinamikan eragin positiboa izateko; izan ere, askotan, zaintza jarraituek eragiten duten estresaren eraginpean egoten baitira. Zerbitzua gaueko zentro batean (egoitza-ekipamendu batean integratuta dagoena edo ez) eman daiteke edo, bestela, egoitza-zerbitzu edo -zentro baten esparruan, gaueko arreta-zerbitzu moduan.

c) Adinekoentzako egoitza-zentroan ohiko bizitokia edo bizitoki iraunkorra eta, hala badagokio, aldi baterako bizitokia eskaintzen zaie II. eta III. graduko mendetasun-egoeran dauden adinekoei, beren premiak ohiko ingurunean edo ostatu-alternatiba arinagoetan behar bezala bete ezin badituzte intentsitate handiagoko babesak behar dituztelako. Zentro horietan arreta integrala eta jarraitua eskaintzen da.

Honako helburu hauek ditu:

- Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko beharrezkoa den zainketa eta laguntza pertsonala bermatzea erabiltzaileei, autonomia pertsonalari eusteko eta, ahal den heinean, garapena sustatu eta narriadura saihesteko ahalegina eginda.
- Haien bizi-proiektuaren errealizazioa babestu eta errespetatzea, familiarekiko eta beste erabiltzaile batzuekiko edo zentrotik kanpoko per-



tsonekiko harremanak mantenduz eta zabalduz, eta, ahal den heinean, zentroko bizitzan eta komunitatean parte hartzea.

- Segurtasun-sentimendua ahalbidetzea.
- Hala badagokio, beharrezko arreta eta laguntza eskaintzea bizitzako azken fasean.

### **3. artikulua - Jarduketa-printzipioak eta arreta-eredua**

**1.** Oro har, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema zuzentzen duten oinarritzko printzipioak, abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte-zerbitzuei buruzkoak, 7. artikuluan jasotzen dituenak, aplikatuko dira, baita tratu- eta aukera-berdintasunaren, genero-ikuspegia txertatzearen eta sexuaren arabera rolak eta estereotipoak kentzearen printzipioak, Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, ezartzen dituenak, ere.

**2.** Zehatz-mehatz, adinekoentzako zentroek jarduketa-printzipio hauetara egokituko dituzte beren arreta-filosofia, antolaketa eta funtzionamendua:

a) Arreta erabiltzaileen eskubideen errespetuaren, sustapenaren eta defentsaren inguruan antolatu eta ematea. Printzipio horren arabera, laguntzak antolatzean ezinbestekoa da beti eskubideen errespetua hartzea arretaren ardatz, beharrezkoak diren eskubide horretarako mugak soilik sartzen saiatuz, erabiltzailearen egoera, gaitasun-maila eta behar zehatzak kontuan hartuta, beraiek izaten jarraitu eta, ahal den neurrian, eduki nahi duten bizi-estiloa aukeratu ahal izaten dezaten laguntzeko asmoz.

b) Ingurunea eta antolaketa komunitatean ohikoak diren bizimoduetara egokitzea. Printzipio horren arabera, bai egituraren eta diseinu fisikoan bai antolaketan, adinekoentzako zentroak etxe baten ahalik eta antz handiena izatea sustatuko da, erabiltzaileek beren ohiko errutinei eusteko helburuarekin, beharrezkoa izan daitekeen malgutasunarekin, eta ahal den neurrian eguneroko lan jakin batzuk egiten lagundu ahal izan dezaten, profesionalen laguntzaz eta laguntza-sarearen (senideak, lagunak, boluntarioak) partaidetzaz.

c) Pertsonarengan ardaztutako plangintzaren ikuspegitik arreta pertsonalizatua eta osoa ematea. Printzipio horren arabera, arreta entzute-prozesu etengabe baten esparruan antolatzen da, arreta jasotzen duten pertsonentzat garrantzitsua zer den jakiteko, haien indibidualtasuna eta diferentzia pertsonalak errespetatzeko, gaitzeko, haien bizitza zentroko bizitzara mugatu beharrean alderdi guztietan kontuan hartzeko eta pertsonen beharrak zentroko errutinen arabera eta egituraren beraren eskuragarritasunen arabera definitzea saihesteko asmoz.

d) Laguntza-eredua aplikatzea. Haren helburua arreta pertsonen autode-terminazioan eta gaitasunetan ardaztea da, mugetan soilik ardaztu beharrean; horretarako, haien nahiekin bat datorren bizitza egiten jarraitu ahal izateko eta,

ahal den neurrian, haien autodeterminazio-maila, harremanak, komunitatean duten partaidetza eta ongizate pertsonala kontserbatzen edo hobetzen laguntzeko behar dituzten laguntzak zehaztuko dira.

e) Bizi-kalitatearen eredia aplikatzea. Egoitza-esparruan, bizi-kalitatearen ereduak zera eskatzen du: alde batetik, onartzea pertsona bakoitzak baduela zeresanik haren bizitza, alderdi guztietan (ongizate emozionala, pertsonen arteko harremanak, ongizate materiala, garapen pertsonala, ongizate fisikoa, autodeterminazioa, gizarte-inklusioa eta eskubideak), garatuko den inguruabarrei eta baldintzei buruz; eta, bestetik, behar dituzten pertsonen laguntza egokiak ematea.

f) Esku-hartzeen diziplinartekotasuna. Helburua emandako laguntza osoa dela eta baliabideak zentzuz eta eraginkortasunez aplikatzen direla bermatzea da; horretarako, talde-lana sustatzen da, baita esku-hartze sozialaren esparruko lanbideen eta egokia den beste edozein lanbideren ekarpenak txertatzea ere.

g) Koordinazioa eta lankidetzak. Printzipio hori bi eremu handitan antolatzen da: alde batetik, adinekoentzako zentro-mota desberdinen arteko koordinazioa eta lankidetzak, elkarren osagarri izateko eta baliabideak zentzuz eta eraginkortasunez erabiltzea ahalbidetzeko, neurri, laguntza-egitura, zerbitzu eta espezializazio diferenteak kontuan hartuta; bestetik, Osakidetza Euskal Osasun Sistemako edo erabiltzaileak heltzen dion beste osasun-sistema baten osasun-zerbitzuekiko koordinazioa eta lankidetzak, beharrezkoa denean, haren arreta jarraitua dela eta banakako beharrek inahalik eta hoberen bat datorrela bermatzeko asmoz.

## II. TITULUA ERABILTZAIEN ETA PROFESIOALEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

### I. KAPITULUA ERABILTZAIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

#### *1. atala - Erabiltzaileen eskubideak*

#### **4. artikulua - Eskubideen zerrenda**

**1.** Oro har, adinekoentzako zentroen erabiltzaileek abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte-zerbitzuei buruzkoak, eta apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak, zeinaren bidez onartu baita Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea, ezarritako eskubideak edukiko dituzte.

## II. TITULUA. ERABILTZAILAILEEN ETA PROFESIONALEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Era berean, berdintasunezko tratua jasotzeko eta eskubide eta aukera berberak bermatuta edukitzeko eskubidea edukiko dute, sexuagatik diferentziarik ezarri gabe, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, xedatutakoari jarraiki.

**2.** Zehatz-mehatz, atal honetan ezarritako eskubideak edukiko dituzte: duintasuna, pribatutasuna, autodeterminazioa, autonomia, hautaketa, norberaren gogobetetasuna eta errealizazioa eta norberaren eskubideen ezagutza eta defentsa.

**3.** Beren eskubideak gauzatzean, erabiltzaileek ezingo diete beste erabiltzaile eta profesional batzuen eskubide legitimoen kalterik egin.

**4.** Estatutu honetan bildutako eskubideak benetan gauzatzen direla bermatze aldera, pertsonen eskubideak eta zentroetako antolaketa-baldintzak uztartzeko eta bateragarri egiteko jardunbide egokien eredu aplikazioa sustatu eta erraztuko da (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak sustatzen ditu, arretaren kalitatea hobetzeko bere ekimenen esparruan), baita aplikagarriak diren jarduketa-protokolo eta -gidena ere.

**5.** Beren eskubideak benetan gauzatzean, erabiltzaileek bai zuzenean —beren kabuz eta, nahi badute, erreferentziako senidearen edo beste hurbileko baten laguntzaz— bai, erabakiak hartzeko gaitasunik ez daukatenean, legezko ordezkariaren edo egitatezko zaintzailearen bidez jardun ahalko dute.

### **5. artikulua - Duintasunerako eskubidea**

**1.** Estatutu honen ondorioetarako, inguruabar orotan, indibidualtasuna eta behar pertsonalak guztiz errespetatuz, pertsonen berezko balioa aitortzeko eskubideari esaten zaio duintasunerako eskubidea.

**2.** Eskubidea benetan gauzatzeko, hauxe egin behar da, erabiltzaileei dagokienez, zentroa egunekoa, gauekoa edo egoitza den aintzat hartuta:

a) Zentroko arduradunek eta zentroetan lan egiten duten profesionalak haien beharrak eta, ahal den alderdi guztietan, haien nahiak guztiz errespetatuko dituzte, faktore etnikoak, erlijiosoak edo espiritualak eta kulturalak ere kontuan izanik.

b) Ez dute adin, sexu, etnia, erlijio, ideologia edo bestelako inguruabar pertsonalengatik bereizkeriarik jasoko.

c) Banaka eta modu pertsonalizatuan emango zaie arreta. Horretarako, zera egin beharko da:

- Erabiltzaile bakoitzarentzat banakako arretako plan (BAP) bat egin. Hauek jaso beharko ditu:
  - . Haien gaitasunen, azturen, lehentasunen eta nahien balioespena.
  - . Haien laguntza-beharren balioespena.
  - . Behar diren laguntzak emateko komenigarriak diren eta, hala badagokio, komenigarriak ez diren arreta-ereduak.

- Ezarritako arreta-ereduak aldizka berrikusi, egiaztatzeko oraindik pertsonen beharrekin eta lehenetsunekin bat datozen ala aldatu eta haien inguruabarren bilakaerara egokitu behar diren.
- Erabiltzaile bakoitzarentzat gutxienez profesional bat izendatu, erreferentzia gisa jardun dezan, eta harreman horretan nolabaiteko jarraitutasuna bermatu.

Horretarako, laguntza-jarduna erabiltzaileen bizimoduetara egokitze ahalegina egingo da, arreta-estilo malgua, arreta jasotzen duten pertsonen egoeran eta beharretan igarritako aldaketen arabera eboluzionatzeko gai dena, sortuz.

d) Erabateko errespetuaz, zuzentasunez eta ulermenez emango zaie arreta, bai ahozko harremanetan bai, hala badagokio, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko behar duten laguntza fisikoan, eta ez zaie tratatu txar fisiko edo morala dakarren tratatu laidogarri edo iraingarririk emango.

e) Arreta segurtasun- eta garbitasun-baldintza egokietan jasoko dute.

f) Autoestimua eta irudi pertsonalaren zainketa sustatuko zaie eta harreman-moduetan errespetua sentituko dute.

g) Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak eta jarduera instrumentalak egiteko beharrezkoak diren laguntzak jasoko dituzte.

h) Ez dute medikuak agindu ez duen eta baimen informatua sinatuz baimendu ez den edo kasuan kasuko jarduketa-protokoloetan eta -gidetan aplikatzeko ezarritako betekizunak betetzen ez dituen muga fisiko edo kimikorik izango.

i) Harreman afektibo eta sexualak intimitate eta errespetuaz adierazi eta eduki ahalko dituzte.

j) Askatasunez adierazi eta ibili ahalko dira, gainerako erabiltzaileen espazio pribatuak, sarbide mugatuko espazioak eta langileek erabiltzeko erreserbatutako espazioak zeharo errespetatuz.

k) Hiltzeko prozesuan, haien beharrekin eta nahiekin (adierazi badituzte) bat datozen babesa eta laguntza edukiko dituzte, eta profesionalak beren jarduketak jardunbide egokietara zein kasuan kasuko jarduketa-protokolo edo -gidetara egokituko dituzte.

## **6. artikulua - Pribatutasunerako eskubidea**

**1.** Estatutu honen ondorioetarako, pertsonak beren intimitate pertsonala eta harremanetakoa gordetzeko, nahi izanik gero bakarrik egoteko, eragotziak ez izateko eta beren gai pertsonaletan inor ez sartzeko eskubideari esaten zaio pribatutasunari eskubidea, barruko alderdia pertsonaren baimenarekin soilik ezagutu ahal dela onartuta.

**2.** Eskubidea benetan gauzatzeko, hauxe egin behar da, erabiltzaileei dagokienez, zentroa egunekoa, gauekoa edo egoitza den aintzat hartuta:

## II. TITULUA. ERABILTZAILIEN ETA PROFESIONALEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

a) Espazio pribatu bat edukiko dute, baita partekatutako espazio eta logeletan ere.

b) Beren logela erabateko askatasunez erabiliko dute eta han nahi duten guztietan egon ahalko dira, ez soilik alde zurretik zehaztutako uneetan. Gainera, lo egiteko ez ezik egongela gisa edo bisitak hartzeko ere erabili ahalko dute. Erabiltzean, partekatutako logelei dagokienez, logelako kidearen intimitaterako eta pribatutasunerako eskubidea errespetatu beharko da.

c) Pertsonak erabakitzeko gaitasuna mugatuta ez badute eta mugikortasuna gordetzen badute, nahi izanez gero, logela giltzaz itxi ahalko dute. Behar denean zailtasunik gabe sartzea ahalbidetzen duen sistema bat prestatu beharko da.

d) Pribatutasuna inguruabar orotan bermatuta edukiko dute, bereziki pertsonak komunean edo beren burua apaintzen daudenean, baita erabiltzaileak guztiz edo zati batean biluzik dauden beste edozein egoeratan ere.

e) Nahi badute beren gauzak giltzapean gordetzeko bidea ematen dien armairu bat edukiko dute.

f) Beren espazio pribatua beren gustura dekoratuko dute, ahal den neurrian beren tresnez pertsonalizatuz.

g) Bisitak jaso eta nahi dituzten pertsonekin komunikatuko dira, telefonoz, posta elektronikoz edo posta arruntaz, pribatutasunean.

h) Logelaren pribatutasunaz gozatuko dute. Horretarako, langileek sartu baino lehen atea jo beharko dute, erantzuteko gai diren pertsonak sartzera gonbidatu arte itxaron eta logeletan sartzean agurtu.

i) Dagokien informazio pribatuaren konfidentzialtasuna bermatuta edukiko dute, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudian xedatutako baldintzetan. Beraz, profesionalak beharrezkoa denean soilik erabili beharko dute informazio hori, eta horrelakoetan adinekoari edo, hala bada, gogio, haren ordezkariari nola erabiliko den jakinaraziko dio eta partekatze baimena eskatuko diote.

j) Eguneroko arretan dagokien informazioaren konfidentzialtasuna bermatuta edukiko dute. Beraz, profesionalak erabiltzaile bati eragiten dioten kontu pertsonalei eta barneko kontuei buruzko iruzkinak egitea saihestu beharko dute eta, oro har, profesionalen artean, horrelako kontuei buruzko beharrezkoak ez diren iruzkinak saihestu beharko dituzte.

### **7. artikulua - Autodeterminaziorako eskubidea**

**1.** Estatutu honen ondorioetarako, modu burujabean jarduteko eta pentsatzeko gaitasunari eta aukerari esaten zaio autodeterminazioa, nolabaiteko arrisku kalkulatu gain hartzeko ahalmena barne.

**2.** Benetan gauzatzeko, neurri hauek hartu behar dira, zentroa egunekoa, gauekoa edo goitza den aintzat hartuta:

a) Erabiltzaileei zentroan sartu baino lehen hori bisitatzeko aukera emango zaie, erabakia informazio gehiagorekin hartu ahal izan dezaten.

b) Beren bizi-estiloa aukeratzeko eta zuzenean edo zeharka eragiten dieten erabakiak hartzeko parte hartzeko gai direla aitortuko da eta beren aukeretan, nahietan eta lehentasunetan errespetatuko dira, erabakiak hartzeko gai ez direla frogatu denean izan ezik. Azken kasu horretan, legezko ordezkariari, egitatezko zaintzaileari edo erreferentziako senideari kontsultatuko zaizkio lehentasunak.

c) Zerbitzuaren antolamenduari eta arretaren eta erabiltzaileen artean zein horien eta profesionalen artean ezartzen diren harreman-ereduen ohiko praktikei eragiten dieten kontuei buruzko kontsultak egingo zaizkie, aldizka.

d) Informazio osoa eta ulergarria helaraziko zaie, eragin ahal dieten kontu guztien inguruan: osasun-egoera, tratamenduak eta zerbitzuak.

e) Ez dira beren nahiaren aurka jardutera behartuko.

f) Jardueretan eta zerbitzuetan parte hartzeari uko egin ahalko diote.

g) Tratamendu bati uko egin ahalko diote, azaroaren 14ko 41/2002 Legeak, pazientearen autonomia, eskubideak eta informazioari eta dokumentazio klinikoari buruzko betebeharrak arautzen dituen oinarrizko legeak, ezarritako baldintzetan.

h) Beren ondasunak eduki eta finantza pertsonalak kontrolatuko dituzte eta, legezko ordezkariarik edo egitatezko zaintzailerik edukiz gero, aldizka eta eskatzen duten guztietan kontuen egoera jakinaraziko zaie.

i) Iradokizunak eta kexak aurkezteko dauden bideetarako sarbidea edukiko dute, baita indarreko legerian xedatutako errekurtsu administratiboa edo judiziala aurkezteko edozein bidetarako sarbidea ere.

j) Jasotzen dituzten zerbitzuen prezioa eta horien edozein aldaketa jakingo dituzte.

k) Zentroko hauteskunde-prozesuetan parte hartuko dute, zentroen estatutu honen eranskin gisa jasotako hauteskunde-araudian xedatutako baldintzetan.

l) Antolatzen diren batzordeetan, lantaldeetan eta jardueretan parte hartuko dute.

m) Zerbitzuan baja hartu ahalko dute, erabiltzaileek erabakitzeko gaitasuna mugatuta ez badute. Bestela, zerbitzuan baja hartzeko erabakia legezko ordezkariari edo egitatezko zaintzaileari egokituko zaio.

## **8. artikulua - Autonomiarako eskubidea**

**1.** Estatutu honen ondorioetarako, erabiltzaileek modu autonomoan moldatzeko beharrezkoa den gaitasun fisikoa sustatuta izateko eta independentzia horren alde egiteko laguntzak eta egokitzapenak jasotzeko duten eskubideari esaten zaio autonomiarako eskubidea.

**2.** Benetan gauzatzeko, neurri hauek hartu behar dira, zentroa egunekoa, gauekoa edo egoitza den aintzat hartuta:

a) Eraikina mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzat kanpotik eta barrutik irisgarria dela bermatuko da.

b) Autonomiari eustearen alde egiteko helburuarekin, pertsoneri benetan behar duten motako eta intentsitateko laguntza eskainiko zaie eta egin ahal dituzten jarduerak edo keinuak beren erritmoan egitea ahalbidetuko da, jarduerak hein batean edo guztiz autonomoki gauzatzeko denbora gehiago eskatu arren.

c) Istripuak eta ererikoak saihesteko jarraibideak eta protokoloak kontuan hartuko dira, autonomia sustatzeko eta mendetasuna saihesteko neurri gisa.

d) Mugikortasun-arazoak dituzten erabiltzaileek ahalik eta autonomia handienarekin eta segurtasunarekin moldatzeko beharrezkoa den ekipamendu egokia edukiko da.

e) Alarma-txirrin irisgarria edukiko da.

f) Haien beharretara egokitutako altzariak eta laguntza-produktuak edukiko dira.

## **9. artikulua - Hautatzeko eskubidea**

**1.** Estatutu honen ondorioetarako, zenbait aukeraren artean askatasunez hautatzeko posibilitateari esaten zaio hautatzeko eskubidea.

**2.** Benetan gauzatzeko, neurri hauek hartu behar dira, zentroa egunekoa, gauekoa edo egoitza den aintzat hartuta:

a) Berariak aitortuko da zentroaren xede nagusietako batek erabiltzaileek beraiek izaten jarraitzeko eta, ahal den neurrian, eduki nahi duten bizimodua aukeratzen jarraitzeko posibilitatea dutela bermatzea izan behar duela.

b) Laguntza-jarduna erabiltzaileen bizimoduetara egokituko da, bizimoduok sistematikoki antolamenduaren komenigarritasunaren baldintzapean utzi beharrean, eta arreta-estilo malgua, arreta jasotzen duten pertsonen egoeran eta beharretan igarritako aldaketen arabera egokitzen dena eta eboluzionatzen duena, sortuko da.

c) Ez zaizkie askatasunak edo aukeratzeko posibilitateak murriztuko murrizteko premia benetan sortu baino lehen.

d) Pertsoneri antzeko beste batzuekin erlazionatzeko, bakarrik ala norbaitekin egotea aukeratzeko, parte hartu nahi ez duten jardueretatik urruntzeko edo bisitak jasotzeko bide ematen dieten askotariko espazioak egongo dira. Zerbitzu txikietan, espazio-aniztasunik ez badago, zona eskuragarrien erabilera optimizatuz eta malgutuz arindu ahalko da egoera.

e) Denek erabiltzeko egunkari, aldizkari eta liburu nahikoak jarriko dira erabiltzaileen esku, baita telebista bat, DVD irakurgailu bat, musika-aparatu bat edo aisialdiko beste ekipamendu batzuk ere. Halaber, WIFI zona bat egongo da.

f) Logeletan telebista-antennarako konexioak instalatuko dira.

g) Komunitate-zerbitzuetarako sarbide erraza bermatzeko baliabideak jarriko dira.

h) Horretarako gaitasuna dutenean, erabiltzaileek (edo, bestela, ordezkariak edo erreferentziako senideek) jantzi nahi duten arropa aukeratu ahal dutela bermatuko da eta erabiltzaileak zentro batean sartzeagatik, antolamendu-ereduetara egokitzeke, beti atsegin izan duten arropa-motari behin betiko uko egitera behartuta ez egoteko baliabideak antolatuko dira.

i) Erabiltzaileei bi menuren artean aukeratzeko posibilitatea emango zaie.

j) Erabiltzaileei interesatzen zaizkien jardueren (askotarikoak eta nahikoak izan behar baitute) programazioari buruzko lehenespenen inguruko kontsultak egingo zaizkie eta kanpoko jarduerak suspertuko dira.

k) Oinarrizko ordutegietan nolabaiteko malgutasuna sartuko da, erabiltzaileen ohitura eta lehentasun pertsonalak errespetatzeko helburuarekin.

## **10. artikulua - Norberaren gogobetetasunerako eta errealizatorako eskubidea**

**1.** Estatutu honen ondorioetarako, bizi-estiloari eusteko eta bizi-proiektuarekin jarraitzeko norberaren nahiak eta gaitasunak eguneroko bizitzako alderdi guztietan gauzatzeko aukerari esaten zaio gogobetetasunerako eskubidea.

**2.** Benetan gauzatzeko, neurri hauek hartu behar dira, zentroa egunekoa, gauekoa edo egoitza den aintzat hartuta:

a) Zentroaren esparruan bizi-kalitatea hobetzeko aukera edukiko dute, ingurune ziur, erabilgarri eta eroso batean moldatuz, eta gaitasun fisikoak, intelektualak, emozionalak eta sozialak maximizatzeko beharrezkoak diren laguntza eta estimulua edukiko dituzte.

b) Antolamenduaren interesei lehentasuna ematen dieten laguntza-errutinen eta prozeduren ondorioz erabiltzaileen eskubideak murrizteko arriskuak saihesten diren ingurunean egongo dira.

c) Autonomia ahalik eta gehien garatuko dute. Horretarako, nolabaiteko arrisku kalkulatu gain hartzeko aukera edukiko dute, ez zaie neurri murriztailerik ezarriko —salbu eta medikuak agintzen badu, eta kasuan kasuko jarduketako protokolo eta -gidetan ezarritako ereduak errespetatuta— eta banakako premiekin bat datozen laguntza teknikoak edukiko dituzte.

d) Aldi baterako kanpoan egon ostean, zentroan zuten plazan berriro sartu ahalgo dira, indarrean dagoen araudian ezarritako mugekin.

e) Kalitate oneko banakako arreta jasoko dute. Horretarako, adinekoa pertsona bakar eta bereizitzaile joko da, arreta-ereduak erabat egokituko dira haren beharretara, modu pertsonalizatuan, eta haren berezitasunak, balioak eta lehenespenak kontuan hartuko dira.

f) Banakako arretako plan (BAP) bat edukiko dute. Aldizka berrikusiko da, eta hori zehazteko erabiltzaileak —zuzenean edo legezko ordezkariaren edo



egitatezko zaintzailaren bidez— eta, nahi izanez gero, erreferenziako senideak parte hartuko dute.

g) Gutxienez erreferenziako pertsona bat esleituta edukiko dute. Harekin konfiantzazko harremana edukiko dute edo garatu ahalko dute eta hark, besteak beste, banakako arreta plana (BAP) prestatzeko eta horren aplikazioaren jarraipena egiteko aktiboki parte hartuko du.

h) Adin bereko pertsonen ohiko bizimoduekin bat datorren bizitza izateko aukera edukiko dute.

i) Ohiko familia-ingurunearekiko, ingurune afektiboarekiko eta sozialarekiko harremanei eutsiko diete.

j) Zentrorako sarbidea errazten duen garraiobide egokitu bat edukiko dute.

k) Osasuneko, gizarte-zerbitzuetako, aisialdiko edo hezkuntzako laguntza-zerbitzu komunitarioetara eta profesionalengana jo ahalko dute.

## **11. artikulua - Norberaren eskubideak ezagutzeko eta defendatzeko eskubidea**

**1.** Estatutu honen ondorioetarako, antolamendu juridikoak aitortutako eskubideak benetan gauzatzea ahalbidetzen duten bideak erabiltzeko aukerari esaten zaio eskubideak ezagutzeko eta defendatzeko eskubidea.

**2.** Benetan gauzatzeko, neurri hauek hartu behar dira, zentroa egunekoa, gauekoa edo egoitza den aintzat hartuta:

a) Idatziz eta ahoz, haien ulermen-maila eta -gaitasunera egokitutako hizkeran eta, hala badagokio, haien behar bereziei egokitutako euskarri edo formatu batean, jakinaraziko zaizkie estatutu honetan jasotako eskubideak, baita zentroyen garapen-araudia eta funtzionamendu-erregelamenduek aplikazioan jasotzen dituzten eskubideak ere.

b) Zerbitzuak emango zaizkien zehaztapenak eta baldintzak biltzen dituen idatzizko kontratu bat edukiko dute. Titulartasun publikoko zentroetan, plaza onartzeko agiriak beteko du kontratuaren funtzioa, hala badagokio, partaidetza ekonomikoko baldintzei buruzko agiriekin batera.

c) Zerbitzuaren funtzionamendua eta antolaketa arautzen dituzten araei eta erregelamenduei buruzko informazioa jasoko dute.

d) Barruko eta kanpoko ebaluazioetan, kalitatea hobetzeko prozesuetan eta zentroaren funtzionamendua dela-eta egiten diren ikuskapen-prozeduretan parte hartuko dute.

e) Herritar-izaerari datxezkion herritar-eskubideak gauzatuko dituzte.

f) Hala badagokio kanpoko instantzietara jotzea ahalbidetzen duen kexa-prozedura formal batera jotzeko eta zentroaren funtzionamendua edo emandako arretaren kalitatea hobetzea xede duten iradokizunak aurkezteko aukera edukiko dute.

g) Osasun-egoera babestuta edukiko dute, prebenitzeko eta osasuna sustatzeko jarraibideak aplikatuz. Halaber, osasun-egoeraren berri emango zaie eta beharrezkoa bada osasun-zerbitzuetarako sarbidea edukitzeko orientabide eta laguntza egokiak edukiko dituzte.

h) Nahi izanez gero, beharrak ebaluatzeko eta banakako arretako plana (BAP) egiteko dituzten elkarrizketetan haien ustez aholkatzeko gai den pertsona baten edo batzuen laguntza izango dute.

i) Zuzenean eragiten dieten erabakiei buruzko kontsultak egingo zaizkie.

j) Haien eskubideak defendatzeko konfiantzazko pertsona bat izendatuko dute edo funtzio hori betetzen duen ordezkari bat izendatzeko aukeraren berri emango zaie.

k) Nahi badute eta erabakiak hartzeko gaitasuna badaukate, erabakien aurretiazko plangintza (EAP) egiteko aukeraren berri emango zaie eta laguntza jasoko dute. Horren bidez, familiak eta profesionalek erabiltzailearen nahiekin, usadioekin eta ohiturekin bat etorri jardun ahalko dute. Plangintza horren esparruan, etorkizunean, autogobernu-gaitasuna galduz gero, ordezkatzeko nahi duten pertsona izendatu ahalko dute eta aurretiazko borondateen agiria sinatu ahalko dute.

l) Argitasunez eta hizkera ulerterrazez legezko ezgaitetako prozeduraren funtzio babeslearen, horretara jotzea komeni den egoeren eta hasteko jarraitu behar zaizkien bideen berri ematen duten liburuxketarako sarbidea edukiko dute.

m) Zentroan erabakiak hartzeko modua (adibidez, ordutegiak nola ezartzen diren, menuak nola erabakitzen diren, jarduerak nola programatzen diren, etab.) jakinaraziko zaie, baita erabaki horiek hartzean nor esku hartzen duen ere.

n) Zentroaren funtzionamenduan parte hartzeko bideak badaudela jakinaraziko zaie eta horietan parte hartu ahalko dute, estatutu honetan araututako taldean parte hartzeko organoen bidez.

## *2. atala - Erabiltzaileen betebeharrak*

### **12. artikulua - Betebeharren zerrenda**

**1.** Oro har, adinekoentzako zentroen erabiltzaileek abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte-zerbitzuei buruzkoak, eta apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak, zeinaren bidez onartu baita Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea, ezarritako betebeharrak edukiko dituzte. Beren betebeharrak betetzean, erabiltzaileek bai zuzenean —beren kabuz eta, nahi badute, erreferentziako senidearen edo beste hurbileko baten laguntzaz— bai, erabakiak hartzeko gaitasunik ez daukatenean, beren legezko ordezka-

riaren edo egitatezko zaintzailearen bidez jardun ahalko dute, kasuan kasuko betebeharra, izaera dela-eta, zeharka eskatzeko modukoa bada.

**2.** Zehatz-mehatz, atal honetan araututako betebeharrak edukiko dituzte.

### **13. artikulua - Araudia betetzea**

**1.** Erabiltzaileek zentroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituzten araudien edukia ezagutu eta betetzeko betebeharra daukate, bereziki estatutu honi eta erabiltzaile diren zentroko barne-araubideko araudiari dagokienez.

**2.** Era berean, erabiltzaileek, zentroan dauden bitartean, sartzeko foru aldundiko araudian eta autonomia-erkidegoko araudian eskatzen diren betekizunak bete behar dituzte, bereziki, urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, ezarritakoak, besteak beste, gaixotasun infekzioso eta kutsagarria edo buruko gaixotasuna edukiz gero dagokion tratamenduari uko ez egitekoa. Kasu guztietan, betekizun horiek aplikatzean, azaroaren 14ko 41/2002 Legeak, pazientearen autonomia, eskubideak eta informazioari eta dokumentazio klinikoari buruzko betebeharrak arautzen dituen oinarrizko legeak, ezarritako mugak eta baldintzak errespetatu beharko dira.

### **14. artikulua - Bizikidetasun-arauak betetzea**

Erabiltzaileek zentro bakoitzeko barne-araubideko araudian jasotako bizikidetasuneko eta elkarrenganako errespetuko araudiak betetzeko betebeharra dute, bai zentroetan bertan bai horko jarduerekin zerikusia duen beste edozein tokitan.

### **15. artikulua - Pertsonak errespetatzea**

**1.** Erabiltzaileek estatutu honetan aitortutako eskubide guztiak errespetatzeko betebeharra dute, bereziki, zentroetako gainerako erabiltzaile guztien eta profesionalen duintasunerako eta pribatutasunerako eskubidea, baita edozein arrazoi dela medio dakiten informazioaren konfidentziasunerako eskubidea ere.

**2.** Erabiltzaileek beste erabiltzaileekiko eta profesionalakiko harremanetan ez dute bereizkeriarik egin behar sexuagatik, sexu-orientazioagatik, egoera zibilagatik, adinagatik, sinesmen edo ideologiagatik, etnia-, nazio- edo hizkuntza-gutxiengo batekoa izateagatik, maila ekonomikoagatik, desgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenekoagatik edo beste edozein egoera pertsonal edo sozialengatik.

### **16. artikulua - Instalazioak errespetatzea**

Erabiltzaileek instalazioak, altzariak eta zentroan haien esku dauden gainerako tresnak modu egokian eta erantzukizunez erabili behar dituzte.

### **17. artikulua - Anomalien eta irregulartasunen berri ematea**

Erabiltzaileek gobernu batzarrari, zuzendaritzari edo kasu bakoitzean adierazten diren profesionali jakinarazi behar dizkiete zentroaren funtzionamenduan, antolaketa edo instalazioetan igartzen dituzten irregulartasunak edo anomaliak.

### **18. artikulua - Prezio publikoa ordaintzea**

Erabiltzaileek, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako gizarte-zerbitzuei aplikatzen zaizkien prezio publikoak arautzen dituen araudiaren arabera, dagokion prezio publikoa puntualki ordaindu beharko dute. Era berean, prezio osoa ordaindu ezin badute, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aldeko zorra aitortzeko agiria sinatu behar dute.

### **19. artikulua - Banakako arretako plana (BAP) betetzea**

Erabiltzaileek banakako arreta plana (BAP) eraginkortasunez aplikatzea erraztu behar dute eta horretarako elkarlanean aritu behar dute. Plan hori beren beharretara edo lehenespenetara jadanik egokitzen ez dela uste badute, erreferentziako profesionalarekin hitz egitea komeni da, aurreikuspenak birdoitzeko.

## **II. KAPITULUA - PROFESIOALEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

### *1. atala - Profesionalen eskubideak*

### **20. artikulua - Eskubideen zerrenda**

**1.** Oro har, estatutu honen menpeko adinekoentzako zentroetako profesionalak lan-eremuan edo funtzio publikoaren eremuan legeriak eta hitzarmen kolektiboek edo aplikagarriak diren enplegu-baldintzak arautzen dituzten akordioek aitortzen dizkieten eskubide guztiak edukiko dituzte.

**2.** Zehatz-mehatz, abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte-zerbitzuei buruzkoak, eta apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak, zeinaren bidez onartu baita Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea, aitortutako eskubideak edukiko dituzte. Era berean, atal honetan aitortutako eskubideak edukiko dituzte.

### **21. artikulua - Duintasunerako eskubidea**

**1.** Profesionalek, beren funtzioak betetzean, duintasunerako, hau da, pertsona gisa duten berezko balioa aitortuta edukitzeko, eskubidea dute.

**2.** Benetan gauzatzeko, erabateko errespetuaz, zuzentasunez eta ulermenaz tratatu behar dituzte bai zerbitzuko arduradunek eta gainerako profesionalak bai erabiltzaileek, ordezkariak edo egitatezko zainzaileek, senideek eta hurbileko beste pertsonak.

## **22. artikulua - Berdintasunerako eskubidea**

Adinekoentzako zentroetako profesionalek beren lanbide-jarduera berdintasun-egoeran betetzeko eskubidea daukate.

## **23. artikulua - Prestakuntza**

**1.** Adinekoentzako zentroetako profesionalek hasierako informazioa eta orientabidea jasotzeko eskubidea daukate, arretaren kalitatea bermatzeko eta erabiltzaileen premietara egokitzeko asmoz eta profesionalak zerbitzuaren edo zentroaren ezaugarrietara egokitzeko helburuarekin.

**2.** Halaber, bizitza aktibo osoan etengabeko lanbide-prestakuntza jasotzeko eskubidea dute, emandako arreta lanbide-jardunbide egokiaren ereduera egokitzen dela bermatze aldera.

**3.** Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak etengabeko prestakuntzako plan horiek eta profesionalak birgaitzea, ezagutzak hobetzea, haien lanbide-gaitasunak arreta eman behar dieten biztanleen ezaugarrietara eta sektorean egindako azterketa eta ebaluazioen emaitzetara hobeto egokitzea ahalbidetzen duten neurriak ezartzea sustatuko du.

## **24. artikulua - Partaidetza**

**1.** Adinekoentzako zentroetako profesionalek eragiten dieten erabakietan eta zentroon antolaketan banaka eta taldeka parte hartzeko zein horko arretaren kalitatea eta funtzionamendua etengabe hobetzen laguntzeko eskubidea dute.

**2.** Eskubide hori benetan gauzatzen dela bermatzeko, profesionalek aukera hauek dauzkate:

a) Ikuskapen-prozeduretan entzun ahal zaie.

b) Zerbitzuak ebaluatzeko prozesuetan eta kalitatea hobetzeko prozesuetan parte hartu ahal dute.

## **25. artikulua - Zerbitzuaren kalitatea**

**1.** Adinekoentzako zentroetako profesionalek dagokien araudiak eskatutako kalitate-irizpideei erantzuten dien zerbitzu bat ematen dela bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak edukitzeko eskubidea dute.

**2.** Benetan gauzatzen dela bermatzeko, profesionalek Arabako Foru Aldundia hertsia dezakete:

a) Indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik ikuskapena dela-eta dagozkion funtzioak bete ditzan, eska dakizkiokeen betekizun materialak, funtzionalak eta langileriakoak betetzen direla bermatzeko.

b) Zerbitzuari aplikatu ahal zaizkion betekizun materialei, funtzionalei eta langileriakoei buruzko informazio egokia susta dezan.

**3.** Era berean, kasu bakoitzean zentroak menpe dauden erakunde publikoak edo pribatuak hertsia ditzakete:

a) Lanbide-jardunbide egokiko eskuliburuak edo gidak eta, hala badagokio, jarduteko protokolo zehatzak haien esku jar ditzaten, beren funtzioak ondo betetzeko egokienak diren jarduketa-ereduez orientatzeko, erabiltzaileekiko, laguntzaileekiko eta gainerako profesionaliekiko harremanetan.

b) Barruko eta kanpoko ebaluazioak eginez zerbitzuen kalitatearen hobekuntza susta dezaten.

c) Arretaren kalitatea etengabe hobetzeko prozesuak aplikatuz zerbitzuen kalitatearen hobekuntza susta dezaten.

## *2. atala.- Profesionalen betebeharrak*

### **26. artikulua - Betebeharren zerrenda**

**1.** Oro har, estatutu honen menpeko adinekoentzako zentroetako profesionalak, zentrook titulartasun publikoak zein pribatukoak izan, beren jarduketan lan-araudiak eta lanbidearen arabera aplikagarria den legeriak ezartzen dizkien eginbeharretara egokitu beharko dute eta esku-hartzea hala badagokio beren diziplinako kode deontologikoak biltzen dituen orientabideetara egokitu beharko dute.

**2.** Zehatz-mehatz, abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte-zerbitzuei buruzkoak, gizarte-zerbitzuetako profesionalentzat eta apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak, zeinaren bidez onartu baita Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea, ezarritako betebeharrak edukiko dituzte. Era berean, atal honetan ezarritako betebeharrak edukiko dituzte.

### **27. artikulua - Pertsonak errespetatzea**

**1.** Profesionalak estatutu honetan aitortutako eskubide guztiak errespetatzeko betebeharra dute, bereziki, adinekoentzako zentroetako erabiltzaileen eta gainerako profesional guztien duintasunerako eta pribatutasunerako eskubidea, baita beren funtzioak betetzeagatik edo beste edozein arrazoi dela medio dakiten informazioaren konfidentziasunerako eskubidea ere.

**2.** Betebehar hori benetan betetzeko, hauxe egin behar da:

a) Erabiltzaileari buruzko informazioa arduraz erabili behar da. Horretarako, informazioa eskuratzean begirunetsuak izan behar dute, beharra justifikatu behar dute eta esku-hartze koordinatu eta eraginkor baterako beharrezkoa denean erabiltzeko baimena eskatu behar dute, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoak, xedatutako baldintzetan.

b) Beste profesionaliekiko eta erabiltzaileekiko harremanetan, ez dute be-reizkeriarik egin behar sexuagatik, sexu-orientazioagatik, egoera zibilagatik, adinagatik, sinesmen edo ideologiagatik, etnia-, nazio- edo hizkuntza-gutxiengo

## II. TITULUA. ERABILTZAILEEN ETA PROFESIONALEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

batekoa izateagatik, maila ekonomikoagatik, desgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenekoagatik edo beste edozein egoera pertsonal edo sozialengatik.

c) Jantzietako alde ikusgai batean izen-identifikazioa eraman behar dute.

d) Erabiltzaileek beren kabuz edo legezko ordezkariaren bidez adierazten dituzten iritziak, irizpideak eta hartzen dituzten erabakiak errespetatu behar dituzte.

e) Erabiltzaileek egin beharreko esku-hartze profesionalean parte hartzea erraztu behar dute.

f) Erabiltzailea beste zerbitzu batera edo batzuetara bideratu behar bada, harentzat onuragarrien den moduan egin beharko du, esku-hartzea jarraitua izan dadin.

### **28. artikulua - Araudia betetzea**

Profesionalek gizarte-zerbitzuen eremuan indarrean dagoen araudia eta, be-  
reziki, jarduten duten adinekoentzako zentroen antolaketa eta funtzionamendua  
arautzen dituzten arauak ezagutu eta betetzeko betebeharra dute.

### **29. artikulua - Bizikidetasun-arauak betetzea**

Profesionalek bizikidetasuneko eta elkarrenganako errespetuko araudiak  
betetzeko betebeharra dute lan egiten duten zentroetan eta beren lanbide-jar-  
duerekin zerikusia duen beste edozein tokitan.

### **30. artikulua - Instalazioak errespetatzea**

Profesionalek lan egiten duten zentroetako eta beren lanbide-jarduerekin  
zerikusia duen beste edozein tokitako ondasun higigarriak eta instalazioak  
behar bezala errespetatzeko eta erabiltzeko betebeharra dute.

### **31. artikulua - Komunikatzeko eginbehera**

**1.** Jarduera adinekoentzako zentroetan betetzen duten profesionalek haien  
iritziz, eta dituzten balioespen-elementuetan oinarrituta, eskubideak urratzea  
ekar lezakeen edozein egoera agintaritze eskudunari jakinarazteko betebeharra  
dute, indarrean dagoen legerian xedatutako baldintzetan.

**2.** Era berean, zerbitzuko arduradunari edo, beharrezkoa baderitzote, Adin-  
tsuen Arloko Zuzendariordetzako arduradunari edo, zentro pribatuetan, menpe  
dagoen erakunde pribatuko arduradunari edo orobat, bi kasuetan, Arabako Foru  
Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Saileko Gizarte Zerbitzuen Ikuskaritzaren arloko  
zerbitzu eskudunari jakinarazi behar dizkiete zentroaren funtzionamenduan,  
antolaketa edo instalazioetan igartzen diren irregulartasunak edo anomaliak.

### III. TITULUA ADINEKOEN ZENTROETARAKO SARBIDEA

#### **32. artikulua - Adinekoentzako zentroetarako sarbidea**

Gizarte-zerbitzuen foru-sarean sartutako adinekoentzako eguneko, gaueko edo egoitza-zentroetarako sarbidea 36/2014 Foru Dekretuan jasotako sarbide-araudian xedatutakoaren menpe dago, bai sartzeko beharrak, betekizunak eta ordena balioesteari dagokionez bai sartzeko eta lekualdatzeko prozedurari dagokionez.

#### **33. artikulua - Baimena**

**1.** 36/2014 Foru Dekretuaren 63. artikuluko 4 c) eta 5. ataletan xedatutakoarekiko koherentziari eusteko, adinekoentzako eguneko, gaueko eta egoitza-zentroen foru-sarerako sarbidea emateko, zerbitzuaren onuradunak aldeztatik berariazko baimena eman beharko du, dokumentu batean jasoz, eta balio juridikoko baldintzetan. Bestela, hauek eman ahalko dute baimena:

- a) Interesdunaren gaineko tutoretza gauzatzen dutenek.
- b) Haren legezko ordezkariak daukanak.

**2.** Aurrekoa gorabehera, modu objektiboan eta arrazoituan ondorioztatzen bada eskatzailea ez dela gauza baliozko baimenik emateko eta, horrez gain, ez badauka aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera ordezkariarik formalki esleitura, egitatezko zaintza gauzatzen dutenek aurrekoentzako eskaera onartu ahal izango da, urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean, prozedura zibilari buruzkoan, xedatutakoarekin bat etorritik.

Hala ere, eskatzailea egoitza-zentro batean sartu nahi denean eta baimen balioudunik emateko moduan ez dagoenean, urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean, prozedura zibilari buruzkoan, horrelako egoeretarako xedatutakoari men egingo zaio, baimen judizialaren beharrari dagokionez, eta kontuan izango dira jurisprudentziak xedapen horiez egiten duen interpretazioa eta, hala badagokio, gaiari buruz sartzeko araudiaren arau-garapenean xedatzen dena.

#### **34. artikulua - Ustezko ezintasuna egoitza batean sartu ondoren**

**1.** Egoitza-zentro batean sartu ondoren zuzendaritzak uste duenean bali-tekeela erabiltzaileak dagozkion erabakiak hartzeko gaitasunik ez edukitzea, inguruabar hori hala badagokio erabiltzaileak ordezkatzeko aurretik izendatu duen pertsonari edo, bestela, erreferentziako senideari jakinaraziko dio, egitatezko zaintzaile izendatzeko eta pertsonari erabakiak hartzen laguntzeko, haren eskubideak defendatuz eta babestuz.

**2.** Aurreko kasuan, pertsona babesgabezia dagoela igartzen bada, erabakiak hartzen lagundu diezaiokien gertuko seniderik ez daukalako edo legezko ordezkari edo egitatezko zaintzaile jarduten duenak haren eskubideak defendatuz.



tzeko edo hura babesteko eginbeharra betetzen ez duela edo egokiro betetzen ez duela igartzen delako, zentroko zuzendaritzak edo arduradunak dagokion lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiari eta Fiskaltzari jakinaraziko die egoera, egokitzen jotzen badute neurriak har ditzaten, urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak, prozedura zibilarenak, 757.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

### **35. artikulua - Adinekoentzako zentroetan sartzea**

**1.** Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak gizarte-zerbitzuen foru-sarean sartutako adinekoentzako zentro baten erabiltzaile-izaera onetsitakoan, pertsonak zentro zehatz bati buruzko informazioa eskatzen badu, bisitatze aukera izango du sartzearen edo zerbitzua erabiltzen hastearen inguruko erabakirik hartu baino lehen.

**2.** Gizarte-zerbitzuen foru-sarean sartutako eguneko, gaueko edo egoitzazentroetan sartzea eta, ondorioz, zentro horien erabiltzaile-izaera eskuratzea, 36/2014 Foru Dekretuak 86. eta 87. artikuluetan xedatutakoaren menpe geratuko da, zentro batean benetan sartzeari eta egokitze-aldiari dagokienez. Halaber, eredu hauekin bat etorri beharko du:

a) Sartzeko prozeduraren esparruan eskatzaileari plaza bat esleitu ondoren, plaza adjudikatzeko ebazpenean adierazten den zentrorra joan behar du, aipatutako ebazpenean edo ondoko jakinarazpen batean zehaztutako egunean.

b) Eskatzailea ezarritako egunean zentroan sartzen ez bada Foru Administrazioari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik, plazari uko egin diola pentsatu ahal izango da, salbu eta inguruabar bereziak direla eta onuraduna zentroan sartu ezin bada. Horrelakoetan interesdunak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari eskatu ahal izango dio zentroan sartzeko eguna aldatzeko. Eskaeran arrazoiak azaldu behar dira.

**3.** Edozein zentrotara sartzekak honako hau ekarriko du:

a) Funtzionamendu-arauak onartzea.

b) Prezio publikoak arautzen dituen foru-araudian xedatutakoaren arabera ordaindu behar den prezio publikoa onartzea eta ordaintzeko konpromisoa hartzea.

c) Egoitza-zentroei dagokienez, zentro edo zerbitzu horretan erroldatzeko betebeharra ere ekarriko du. Pertsonak erroldatzeko betebeharrak hori onartzen ez badu, sartzea ukatu ahaliko zaio, betebeharrak hori ez betetzea aitortutako eskubideari uko egitea dela ondorioztatuta.

**4.** Eskatzaileari edo, hala badagokio, ordezkatzeko duenari, esleitutako zentroaren barne-funtzionamendua zuzentzen duten arauen berri emango zaio eta, zentroen estatutu honen kopiaz gain, barne-araubideko araudiaren eta informazio-liburuxkaren kopia bana emango zaio (estatutu honen 38. eta 39. artikuluetan araututa daude, hurrenez hurren).

### **36. artikulua - Egokitze-aldia**

**1.** Gizarte-zerbitzuen foru-sareko zentro batean sartu eta gero, pertsonak zentroaren ezaugarrietara eta funtzionamendura egokitzeko aldi bat izango du. Aldi horrek gehienez 3 hilabete iraungo du eta, bitartean, integrazioa errazteko helburuarekin, erabiltzaileak beharrezkoak diren laguntza teknikoak jasoko ditu.

**2.** Egokitze-aldi horretan pertsona egokitzen ez dela igartzen bada, zentroko zuzendaritzak edo arduradunak —diziplinarteko taldeak proposatuta— eta erabiltzaileak berak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Adintsuen Arloko Zuzendariordetzari jakinarazi behar diote, eta horrek egoera ebaluatu eta ebaluazio-txosten bat egingo du. Ebaluazio hori egiteko, erabiltzailearekin elkarrizketa izango du; harekin erreferentziako pertsona edo, hala badagokio, legezko ordezkaria edo egitatezko zaintzailea egon ahalko da.

**3.** Adintsuen Arloko Zuzendariordetza Teknikoak ebaluazio-txostena jakinaraziko dio erabiltzaileari edo haren ordezkariari, 15 egun balioduneko epean egokiak deritzeten alegazioak egin ditzaten. Epealdi horretan alegaziorik aurkezten ez bada, prozedurak aurrera egingo du.

**4.** Alegazio-izapidea betetakoan, Adintsuen Arloko Zuzendariordetza Teknikoak ebazpen-proposamen bat egingo dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Kudeaketako Zuzendaritzari; horren bidez, zentrorako sarrera baieztatuko da edo erabiltzailea beste zentro batera eramatea erabakiko da.

**5.** Adintsuen Arloko Zuzendariordetza Teknikoak aurkeztutako proposamen oinarrituta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Kudeaketako Zuzendaritzak ebazpen arrazoitu bat emango du. Ebazpen horrek adierazten badu pertsonak zentro bateko erabiltzaile-izaera galdu duela eta beste zentro bat esleituko zaiola, zentro-aldaketa jakinarazpena egin eta hurrengo hilabetean egingo da.

### **37. artikulua - Erabiltzaile-izaera**

**1.** Gizarte-zerbitzuen foru-sareko adinekoentzako zentroetako erabiltzaileak egoera hauetako batean egon ahalko dira:

a) Denboraldi jakin baterako altan.

b) Denboraldi mugagabean altan.

c) Aldi baterako bajaran, erabiltzaile-izaera aldi baterako eteteagatik; eteteko arrazoiak 36/2014 Foru Dekretuaren 74. artikuluan xedatutakoak dira.

**2.** Adinekoentzako zentro bateko erabiltzaile-izaera 36/2014 Foru Dekretuaren 75 artikuluan xedatuta dauden eskubidea iraungitzeko arrazoiengatik galduko da.

### **38. artikulua - Barne-araubideko araudia**

Gizarte-zerbitzuen foru-sarean sartutako adinekoentzako eguneko, gaueko eta egoitza-zentroek barne-araubideko araudi bat eduki beharko dute, eta haren edukiak, nolana ere, alderdi hauek arautu beharko ditu:

### III. TITULUA. ADINEKOEN ZENTROETARAKO SARBIDEA

- a) Zentroari buruzko oinarriko datuak:
  - Identifikazio-datuak, kokapena eta kontaktua
  - Zentroaren definizioa eta helburuak
  - Zentroaren edukiera eta espazioen banaketa
- b) Sartzeko jarraibideak eta geratzeko baldintzak:
  - Sartzeko moduak
  - Sartzean hartutako konpromisoak eta geratzeko baldintzak
  - Erabiltzaileen eskubideak eta eginbeharrak
  - Erreferentziako senidearen izendapena
  - Egokitze-aldia, egoitza-zentroetan
  - Ordaindu beharreko prezioak eta ordaintzeko modua
  - Logelen esleipena; zehaztu beharko da erabiltzailea sartzen denean hutsik geratu den logelara joango dela, nahiz eta gero logelaz aldatzeko eska dezakeen.
  - Absentzia-araubidea
  - Zerbitzutiko baja
- c) Partaidetza
  - Erabiltzaileari kontsultatzeko eginbeharra
  - Taldean parte hartzeko organoen bidezko partaidetza
  - Iradokizunen aurkezpena
  - Kexen aurkezpena
- d) Bizikidetza-arauak:
  - Jarraibide orokorrak
  - Zentroko espazioen erabilera
  - Kanporako irteerak eta zentrorako bisitak
  - Segurtasun-kontseiluak
  - Langileekiko harremanak

#### **39. artikulua - Informazio-liburuxka**

Adinekoentzako zentroek informazio-liburuxka bat, irudiduna eta erraz ulertzeko moduko hizkeran idatzia, eduki beharko dute; horretan, zentroko bizitzaren oinarriko alderdiak islatu beharko dira.

## IV. TITULUA ANTOLAKETA- ETA FUNTZIONAMENDU-EGITURA

### I. KAPITULUA ZENTROEN ZUZENDARITZA

#### 40. artikulua - Erantzukizunen esleipena

1. Zentroko zuzendariak edo arduradunak du zentroak ondo funtzionatzeko ardura.

2. Zuzendaria edo arduraduna ez badago edo gaixorik badago, beharrezkoa bada, Adintsuen Arloko Zuzendariordetza Teknikoak (titulartasun publikoko zentroetan) edo zentroa menpe dagoen erakunde pribatuak hura ordeztzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu eta zentroko gobernu batzarrari komunikatuko dio.

#### 41. artikulua - Funtzioak

Zentroko zuzendariak edo arduradunak zentroaren kudeaketa gain hartzen du eta hor funtzionamendua arautzen duten xedapen guztiak aplikatzen direla bermatzen du, Adintsuen Arloko Zuzendariordetza Teknikoaren menpe organiko eta funtzionalki foru-titulartasun publikoko zentroetan eta kasuan kasuko erakunde pribatuaren menpe titulartasun pribatuko zentroetan.

### II. KAPITULUA ERABILTZAILEEK TALDEAN PARTE HARTZEKO ORGANOAK

#### 42. artikulua - Erabiltzaileen partaidetza

1. Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte-zerbitzuei buruzkoak, 9 j) artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaileen eta Profesionalen Eskubide eta Betebeharren Gutunak eta Iradokizunen eta Kexen Araubideak 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, adinekoentzako zentroetako erabiltzaileek eragiten dieten erabakietan eta zentroen funtzionamenduan zuzenean edo zeharka, ordezkarien bidez, parte hartzeko eskubidea daukate. Horretarako, kapitulu honetan xedatutako taldean parte hartzeko organoetz baliatuko dira.

2. Aurrekoa gorabehera, 14 plazako edo gutxiagoko zentroetan, taldean parte hartzeko eskubidea kapitulu honetan xedatutakoez bestelako formulen bidez antolatu ahalko da, baldin eta eskubide hori benetan bermatzen badute eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailean zerbitzuak baimentzeko eta ikuskatzeko arloan eskumena duen zerbitzuak hala uste badu.

3. Gizarte-zerbitzuen foru-sarean sartutako adinekoentzako zentro bakoitzak taldean parte hartzeko bere organoak eduki beharko ditu, aurreko bi ata-

letan xedatutako baldintzetan. Parte hartzeko organo horiek ezingo dituzte bi zentrok edo gehiagok partekatu, nahiz eta eraikin berean egon eta erakunde beraren titulartasunekoak izan.

#### **43. artikulua - Taldean parte hartzeko organo-motak**

**1.** Taldean parte hartzeko organo hauek egongo dira:

- a) Erabiltzaileen batzarra.
- b) Gobernu batzarra.
- c) Senideen batzarra.

**2.** Era berean, erabiltzaileek eta senideek, nahi izanez gero, erabiltzaileen batzordeak edo senideen batzordeak eratu ahalko dituzte kontu zehatz eta puntualak jorratzeko.

#### *1. atala - Erabiltzaileen batzarra*

#### **44. artikulua - Osaera**

Erabiltzaileen batzarra hauek osatuko dute:

- a) Zentroko erabiltzaile guztiek; zuzenean edo legezko ordezkariaren edo egitatezko zaintzailearen bidez jardun ahalko dute.
- b) 48. artikuluan definitzen diren gobernu batzarreko berezko kideek, hitzarekin baina botorik gabe.

#### **45. artikulua - Bileren aldizkakotasuna eta deialdia**

**1.** Erabiltzaileen batzarra gutxienez urtean behin egingo dituzte ohiko bilera. Horrez gain, gobernu batzarraren erabakiaz, ekimen propioaz edo erabiltzaileen %25en eskaera arrazoitu eta idatziaz deitzeari egokia irizten zaion guztietan egingo dira bilkura bereziak.

**2.** Batzar bakoitzerako deialdia gobernu batzarreko lehendakariak edo, horrelakorik ez badago, zuzendariak egingo du, gutxienez 7 eguneko aurrerapenarekin. Zentroko iragarki-taulan argitaratuko da. Bertan, ohikoa edo berezia den azalduko da, egingo den eguna, ordua eta tokia adieraziko dira eta jorratu beharreko gaien zerrenda emango da.

#### **46. artikulua - Batzarraren eraketa eta erabakiak hartzea**

**1.** Erabiltzaileen batzarra, lehen deialdian, erabiltzaileen %50 badaude egongo da baliozkotasunez eratuta; bigarren deialdian, zenbat pertsona joaten den kontuan hartu gabe eratuko da. Bigarren deialdi hori lehenerako ezarritako ordua eta ordu erdi geroago egin beharko da nahitaez.

**2.** Batzarra eratutakoan, lehendakaria hautatuko da eta gizarte-langile bat idazkari izendatuko da; haiek erabiltzaileen batzarreko mahaia osatuko dute,

eta haien agintaldia hori bukatutakoan amaituko da. Lehendakaria eskua jasota hautatuko da, kargurako hautagaiak aurkeztu ostean.

**3.** Erabiltzaileen batzarraren erabakiak dauden pertsonen gehiengoaz hartuko dira, salbu estatutu honetan xedatutako kasuetan, non bestelako gehiengo eskatzen den. Aldeko botoen kopuruak kontrako botoen kopurua gainditzen duenean ondorioztatuko da gehiengo lortu dela; horretarako, ez da ez abstentziorik ez boto baliogaberik zenbatuko.

**4.** Batzarraren akta egingo da eta, bertan, honako hau jasoko da:

- a) Erabiltzaileen batzarrera joan direnen kopurua.
- b) Mahaiaren eraketa.
- c) Gai-zerrendaren garapena.
- d) Hartutako erabakiak.

Aktaren kopia bat zentroko iragarki-taulan argitaratu beharko da.

#### **47. artikulua - Funtzioak eta ahalmenak**

Hauek izango dira erabiltzaileen batzarraren funtzioak eta ahalmenak:

- a) Aribideko ekitaldiari dagozkion inbertsioen berri izatea.
- b) Urteko jarduera-programen berri izatea.
- c) Zentroko barne-arabideko araudiaren onespeneren berri izatea.
- d) Bertaratu direnen 2/3eko gehiengoaz gobernu batzarreko karguen agintaldia errebotatzea erabakitzea, baldin eta arrazoi justifikaturik badago eta batzarraren deialdiko gai-zerrendan jasota badago.
- e) Ezarritako gai-zerrendan barne hartu gabeko gaiak sartzea onestea, eztabaida eta bozketaren arabera.
- f) Erabiltzaileen batzordeen antolaketa onestea.
- g) Erabiltzaileen eskubideak eta interesak sustatu eta defendatzea.
- h) Zentroaren funtzionamenduaren jarraipena egitea.
- i) Zentroko zuzendaritzari zentroaren antolaketa eta funtzionamenduari zuzenean edo zeharka eragiten dieten proposamenak aurkeztea.
- j) Erabiltzaileentzat eta senideentzat onuragarriak eta interesgarriak diren jarduera guztiak proposatzea.

## **2. atala - Gobernu batzarra**

#### **48. artikulua - Osaera**

**1.** Zentroko gobernu batzarra honako hauek osatuko dute:

a) Hauteskunde bidezko kideek, erabiltzaileek hautatutako ordezkariak, haiek zuzenean, askatasunez, sekretupean eta hurrengo artikuluan zehaztutako moduan eta kopuruan aukeratuek. Pertsona horiek erabiltzaileen bozeramaile jardungo dute, gobernu batzarrari kezkatzen dituzten edo haien aburuz hobe daitezkeen alderdien berri emanez.

b) Berezko kideak:

- Zentroko zuzendaria edo arduraduna.
- Idazkari jarduten duen gizarte-langilea.
- Gainbegiralea edo, bestela, beste osasun-langile bat.

Berezko kideek zentroa eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea ordezkatu-ko dute, titulartasun publikoko zentroetan, eta zentroa menpe dagoen erakunde pribatua, titulartasun pribatuko zentroetan.

c) Senideen batzarreko kide ordezkari bat.

**2.** Gobernu batzarrean sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkari-za edukitzeko ahalegina egingo da eta, proportzio hori errespetatu ezin bada, behar bezala arrazoitu beharko da.

**3.** Era berean, karguagatik, jakintzagatik edo lanbide-jardueragatik gobernu batzarrari erabakiak hartu baino lehen gai-zerrendako gaien inguruko aholkuak eman ahal dizkioten pertsonak joan ahalko dira, gobernu batzarrak gonbidatu-ta, eta hitzik eta botorik gabe.

#### **49. artikulua - Ordezkarien hautaketa**

**1.** Erabiltzaileen ordezkariak erabiltzaileek hautatuko dituzte zentro bakoit-zean, kopuruaren arabera, eskala honi jarraiki:

a) Gehienez 50 erabiltzaile, 5.

b) 25 erabiltzaile gehiago edo frakzioa dagoen bakoitzean, ordezkari bat gehituko da, gehienezko kopurura, 8ra, heldu arte.

Erabiltzaileen ordezkariak estatutu honen eranskinean jasotako hauteskun-de-araudian xedatuta dagoenarekin bat etorri- z hautatuko dira.

**2.** Senideen ordezkaria senideen batzarrak hautatuko du.

**3.** Gobernu batzarreko lehendakaria eta lehendakariordea erabiltzaileen ordezkari diren kideek haien artean hautatuko dituzte.

**4.** Gobernu batzarraren agintaldiak 2 urte iraungo du.

#### **50. artikulua - Hauteskunde- deialdia**

**1.** Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak gober- nu batzarrerako hauteskunde- deialdia sustatuko du, hori eratuta ez dagoe- nean eta ireki berri diren zentroetan.

**2.** Hauteskunde- etarako deialdia gutxienez bozketarako ezarritako egu- na baino 21 egun natural aurretik egingo da, hedatu eta argitaratu ostean. Hauteskunde- araudiak, estatutu honen eranskinean baitago, hauteskunde- mahaiaren prozedurak eta funtzioak, hautagaitzak eta bozketa- modalitatea ezarriko ditu.

### **51. artikulua - Bileren aldizkakotasuna eta deialdia**

**1.** Gobernu batzarrak, gutxienez, hiruhilekoan behin egingo du ohiko bilera. Halaber, lehendakariak bere ekimenez, zentroko zuzendaritzak eskatuta edo kideen erdiek eta batek gehiagok idatziz eskatuta egingo du bilera berezia.

**2.** Batzarra kideei berariazko deialdia eginda bilduko da beti. Deialdi hori gutxienez 48 orduko aurrerapenez egin beharko da. Bertan, gai zerrenda, egingo den tokia, eguna eta ordua aipatuko dira.

### **52. artikulua - Gobernu batzarraren eraketa eta erabakiak hartzea**

**1.** Batzarra, lehen deialdian, erabiltzaileen erdiak eta bat gehiago daudenean egongo da baliozkotasunez eratuta. Bigarren deialdian, gutxienez erabiltzaileek aukeratutako kideen erdiak eta bat gehiago daudenean egongo da baliozkotasunez eratuta, baldin eta lehendakaria edo, bestela, lehendakariordea dagoenean. Bigarren deialdia lehena eta ordu erdi geroago egingo da.

**2.** Gobernu batzarraren erabakiak bertaratzen diren kideen gehiengo sinpleaz hartuko dira, eta, berdinketa egonez gero, lehendakariaren botoak erabakiko du.

### **53. artikulua - Gobernu batzarraren funtzioak eta ahalmenak**

Gobernu batzarrari funtzio eta ahalmen hauek dagozkio:

a) Erabiltzaileekin etengabeko harremana edukitzea, horien nahiak eta beharrak ahalik eta ongien ezagutzea lortzeko asmoz.

b) Erabiltzaileen artean partaidetzazko bizikidetasun demokratikoko harremanak zaintzea eta komunitatearen bizitzan parte har dezaten sustatzea.

c) Erabiltzaileen artean solidaritatea piztea, elkarlanean aritzeko eta elkarri laguntzeko ekintzak sustatuz.

d) Bere eginkizunak hobeto betetzeko beharrezkotzat jotzen diren lan-batzordeak eratzea.

e) Arauzko epeetan gobernu batzarrerako erabiltzaileen ordezkarietzako hauteskundeak iragartzea eta kideen artean lehendakaria eta lehendakariordea aukeratzea.

f) Zentroko barne-araubideko araudiaren proiektua onestea eta, foru-titulartasuneko zentroetan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Adintsuen Arloko Zuzendariordetzari bidaltzea berrets dezan.

g) Zentroaren urteko aurrekontuan xedatutako inbertsioen berri izatea.

h) Urteko jarduera-programa onestea, horren garapenean parte hartzea eta bete dadin zaintzea.

i) Urtero txosten bat egitea erabiltzaileen batzarrak garatutako kudeaketaren berri izan dezan, arazoak eta komenigarritzat jotzen diren irtenbideak azalduz.



j) Oro har, zentroko zuzendaritzarekin eta langileekin elkarlanean aritzea, nahi diren helburuak erdiesteko.

k) Zehatzeko eskumena gauzatzea, estatutu honen 75. artikuluan ezarritakoaren arabera.

l) Aurrerantzean esleitzen zaion beste edozein.

#### **54. artikulua - Gobernu batzarreko lehendakariaren funtzioak**

**1.** Hauek izango dira gobernu batzarreko lehendakariaren funtzioak:

a) Zuzendariarekin batera, zentroaren ordezkaria izatea erabiltzaileen ordezkari-tza egokia eskatzen duten egintza, jarduera eta inguruabar guztietan.

b) Erabiltzaileen batzarraren eta gobernu batzarraren bileretara deitzea eta horien gai-zerrenda ezartzea.

c) Gobernu batzarraren bileren buru izatea.

d) Zuzendaritzatik gobernu batzarraren eskumenei edo, oro har, erabiltzaileei dagokien informazio guztia jasotzea.

e) Estatutu honen eta zentroko barne-araubideko araudiaren aplikaziotik ondoriozta daitekeen beste edozein funtzio betetzea.

**2.** Lehendakaria etortzen ez denean, gaixorik dagoenean edo lehendakari-rik ez dagoenean, lehendakariordeari esleituko zaizkio ahalmen horiek.

#### **55. artikulua - Gobernu batzarreko idazkariaren funtzioak**

**1.** Hauek izango dira gobernu batzarreko idazkariaren funtzioak:

a) Eztabaidak moderatzea eta bilkuren akta egitea; bertan, lehendakariaren oniritzia ageri behar da.

b) Bidezkoa denean eta berariaz eskatzen diotenean, batzarraren erabakien ziurtapena ematea.

c) Batzarraren jardurekin zerikusia duten funtzio administratiboak burutzea.

d) Batzarraren liburuak, agiriak eta gutunak gordetzea.

**2.** Idazkaria etortzen ez bada, gaixorik badago edo idazkaririk ez badago, zentroko zuzendariari edo arduradunari esleituko zaizkio ahalmen horiek.

#### **56. artikulua - Gobernu batzarreko kideen funtzioak**

**1.** Gobernu batzarreko kideei dagokie:

a) Lehendakariari gobernu batzarraren eta erabiltzaileen batzarraren gai-zerrendan sartu behar diren gaiak proposatzea.

b) Agintzen zaizkion lan-batzordeen buru izatea.

c) Gobernu batzarreko karguei laguntza ematea.

d) Eztabaidetan parte hartzea eta erabakiak bozkatzea.

**2.** Gobernu batzarreko kideek ez dute ordainsaririk jasoko.

### **3. atala - Senideen batzarra**

#### **57. artikulua - Senideen batzarra**

**1.** Adinekoentzako zentroetako erabiltzaileen senideek edo bestelako hurbileko pertsonak osatuko dute, baita gobernu batzarraren ordezkari jarduten duten erabiltzaileek ere. Erabakiak hartzeko, onartuko da familia bakoitzak zentro horretan erabiltzaile diren adineko senide adina boto izango dituztela, kontuan izan gabe familiako zenbat kidek parte hartzen duen batzarrean.

**2.** Funtzionatzeko, estatutu honetan erabiltzaileen batzarrerako xedatutako arauari heldu ahalko die.

**3.** Hauek izan ahalko dira haren funtzioetako batzuk:

a) Erabiltzaileen eskubideen eta interesen alde egitea; haien nahien eta beharren bozeramaile jardun beharko du.

b) Zentroaren funtzionamenduaren jarraipena egitea.

c) Zentroko zuzendaritzari zentroaren antolaketa eta funtzionamenduari zuzenean edo zeharka eragiten dieten proposamenak aurkeztea.

d) Hitzaldi hezigarriak, autolaguntza-taldeak, familia berriei harrera egiteko taldeak edo erabiltzaileen bizi-kalitaterako eta emandako arretaren kalitaterako interesgarriak eta onuragarriak diren beste jarduera batzuk antolatzea.

e) Gobernu batzarrean izango duten ordezkaria izendatzea.

### **4. atala - Erabiltzaileen eta senideen batzarrak**

#### **58. artikulua - Osaera eta funtzioak**

**1.** Erabiltzaileen eta senideen batzarrak boluntarioek osatuko dituzte.

**2.** Haren funtzioak zentroaren antolaketa eta funtzionamenduaren alderdi zehatzak antolatzea edo horiek jarraipena egitea izango da, erabiltzaileen eskubide eta beharretara hobeto egoki daitezela sustatzeko eta horretarako egokiak iruditzen zaizkien iradokizunak egiteko helburuarekin.

**3.** Batzorde batzuen zein besteen antolaketa erabiltzaileen batzarraren eta senideen batzarraren ohiko bileren edo bilera berezien esparruan erabakiko da, hurrenez hurren.

## **V. TITULUA BANAKA PARTE HARTZEKO BIDEAK**

#### **59. artikulua - Kontsultatzeko eginbeharra**

**1.** Erabiltzailearekin edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariarekin edo egitatezko zaintzailearekin kontsultatu beharko da zuzenean eragin ahal dion edozein erabaki.

**2.** Pertsonak legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzailerik ez badauka, hala badagokio aurretik ordezkatzeko izendatu duen pertsonari edo, bestela, erreferentziako senideari egin ahalko zaio kontsulta. Era berean, komenigarria edo beharrezkoa irizten zaien egoera guztietan egin ahalko zaie kontsulta pertsona horiei.

#### **60. artikulua - Iradokizunak eta kexak formalki aurkeztu aurretiko bideak**

**1.** Adinekoentzako zentro guztiek erreferentziako profesionalak izendatu beharko dituzte erabiltzaileek edo, hala badagokio, haien ordezkariak, egitatezko zaintzaileak, senideak edo hurbileko beste pertsona batzuek zentroko bizitza arruntari edo funtzionamenduari buruzko zein erabiltzailearen banakako arretako planari (BAP) buruzko kontsultak edo proposamenak egin ahal izateko. Komunikazio horietarako, bide hauek ezarriko dira:

- a) Posta elektronikoa.
- b) Telefono bidezko kontsulta.
- c) Elkarrizketa-eskaera.
- d) Salbuespenez, aurretiko hitzordurik gabeko kontsulta.

**2.** 1. paragrafoan aipatutako bideetatik erantzun gogobetegarria lortzen ez bada, zentroko zuzendaritzara jo beharko da.

#### **61. artikulua - Iradokizunen eta kexen araubidea**

**1.** Zentroko zuzendariaren edo arduradunaren erantzuna, aurreko artikuluan aipatutakoa, gogobetegarria ez bada, erabiltzaileak edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak, egitatezko zaintzaileak edo are ordezkatzeko aurretik izendatutako pertsonak edo erreferentziako senideak iradokizun-prozedurari edo kexa-prozedurari heldu ahalko dio, kasuaren arabera. Horretarako, erreferentziako profesionalak Erabiltzailearentzako Arretako Unitatera (EAU) bideratu beharko dituzte, beren kabuz betetzeko zailtasunik edukiz gero betetzen lagundu eta unitate horretara jotzeko beharrezkoak diren jarraibide guztiak eman.

**2.** Iradokizun eta kexen araubidea arlo horretan indarrean dagoen foru-arau zehatzari men egingo dio eta, horren ordeztu, apirilaren 64/2004 Foru Dekretuan, zeinaren bidez onartu baita Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea, autonomia-erkidegoaren mailan xedatuta dagoen iradokizun eta kexen araubideari.

## VI. TITULUA ARAU HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ARAUBIDEAK

### 62. artikulua - Arau hausteen eta zehapenen araubidea

Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte-zerbitzuei buruzkoak, VII. titulu-ko II. kapituluaren araututako arau hausteen eta zehapenen araubidea aplikatuko zaie adinekoentzako zentroetako erabiltzaileei; lege horren xedapenak titulu honetan kopia dira, izaeragatik zentro horien testuingurura aplikatu ahal diren alderdietan.

## I. KAPITULUA ARAU HAUSTEAK

### 63. artikulua - Kontzeptua

1. Estatutu honen ondorioetarako, titulu honetan xedatutako eta abenduaren 5eko 12/2008 Legean, gizarte-zerbitzuei buruzkoan, tipifikatutako egintzak eta ez-egiteak joko dira arau hauste administratibotzat, erator litezkeen erantzukizun zibilak, penalak edo bestelakoak gorabehera.

2. Arau hausteak arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke eta estatutu honen 64., 65. eta 66. artikuluetan arau hauste maila horiei dagokienez xedatutako jokabide-motak biltzen dituzte. Barne-araubideko araudiek maila bakoitzean sartu behar diren egitate eta inguruabar espezifikoak zehaztu behar dituzte.

### 64. artikulua - Arau hauste arinak

Hauek dira arau hauste arinak:

a) Ezarritako arau, eskakizun eta prozedurak ez betetzea, bai eta gizarte-zerbitzuen programa eta jarraibideei ez jarraitzea, halako eran, non gizarte esku-hartzearen xedea desitxuratzen den.

b) Zuzendaritzako arduradunari, zerbitzuko edo zentroko pertsonaleko kideei, erabiltzaileei eta bisitariei zor zaien begiruneari arinki huts egitea.

c) Instalazioak modu desegokian erabiltzea eta zerbitzuko jarduerak asaldatzea, bizikidetzako eta elkarrekiko errespetuko arauak aldaraziz eta bizikidetzari kalte eraginez.

d) Erabiltzaileentzako eta profesionalentzako barne-araubideko araudian jasotzen diren betebeharrak ez betetzea, ez betetze hori, bere izatasunagatik eta larritasunagatik, astuntzat edo oso astuntzat tipifikatua izan ez denean.

### 65. artikulua - Arau hauste astunak

Hauek dira arau hauste astunak:

- a) Zuzendaritzako arduradunari, pertsonaleko kideei, erabiltzaileei eta bisitariei zor zaien begiruneari larriki huts egitea.
- b) Zentroko ondasun eta ekipamenduetan kalte larria edo zentroko zerbitzuen ohiko garapenari edo bizikidetzari galera nabariak eragitea.
- c) Barne-araubideko kasuan kasuko araudian jasotzen diren betebeharrak larriki ez betetzea, ez-betetze hori oso larria ez denean.
- d) Arau hauste arinetan berrerortzea.

#### **66. artikulua - Arau hauste oso astunak**

Hauek dira arau hauste oso astunak:

- a) Zentroko arduradunari, pertsonaleko kideei, erabiltzaileei edo bisitariei eraso egitea edo tratu txarrak ematea.
- b) Zentroaren, pertsonalaren, erabiltzaileen edo bisitarien ondasunak otea.
- c) Zentroko ondasun eta ekipamenduetan edo zerbitzuen ohiko garapenean edo zentroko bizikidetzan kalte edo galera oso larriak eragitea.
- d) Arau hauste astunetan berrerortzea.

#### **67. artikulua - Berrerortzea**

Estatutu honen ondorioetarako, eta Gizarte-zerbitzuen legearen 92. artikuluekin bat etorriz, arau hausteen arduradun diren pertsona fisiko edo juridikoek bi urteko epe barruan izaera bereko arau hauste bat baino gehiago egin dutenean eta ebazpen irmo baten bidez aitortua izan denean esango da berrerortzea egon dela.

## **II. KAPITULUA ZEHAPENAK**

#### **68. artikulua - Zehapen-motak**

**1.** 64., 65. eta 66. artikuluetan aipatutako arau hausteei, erabiltzaileei egotzi ahal zaizkienean, honako zehapen hauek aplikatzea eragingo dute:

- a) Arau hauste arinak idatzizko zentzarazpen baten bidez eta/edo 200 eurorainoko isun baten bidez zehatuko dira.
- b) Arau hauste astunak 201 eurotik 600 eurora bitarteko isun baten bidez zehatuko dira.
- c) Arau hauste oso astunak 601 eurotik 1.500 eurora bitarteko isun baten bidez zehatuko dira.

**2.** Zerbitzuaren erabiltzaileei egozgarri zaizkien arau hauste oso astunetan, zehapen gisa eskubidearen etendura ere pilatu ahal izango da gehienez 6 hilabeteko aldi batean, zenbait kasutan izan ezik; adibidez, etendura horrek

babesgabetasun-egoeraren bat sor balezake edo mendekotasuneko egoeran dagoen pertsona baten arreta-eza eragin balezake.

### **69. artikulua - Neurri osagarriak**

Arau hauste astun eta oso astunetan, aplikatutako zehapenekin batera neurri osagarri hauek hartu ahalko dira:

a) 36/2014 Foru Dekretuaren 78. artikuluan araututa dauden baldintzetan ofizioz lekualdatzea; ofiziozko lekualdaketa hori behin-behinekoa edo behin betikoa izan daiteke.

b) Talde-ordezkaritzako organoetan sartzeko aldi baterako desgaitzea.

### **70. artikulua - Zehapenen mailaketa**

**1.** Ezartzea bidezko den zehapenak zehazteko eta, behar izanez gero, isunen zenbatekoa eta aldi baterako zehapenen iraupena graduatzeko, zehapenen beharrezko egokitzapena eta proportzionaltasuna zaindu beharko dira, arau haustea eratzten duen egitearen larritasunaren aldean, eta bereziki honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Eragindako kalte fisikoak, moralak eta materialak.

b) Pertsona eta ondasunentzat sortutako edo mantendutako arriskuko egoera.

c) Arau haustea egitean erabili den zabarkeria- edo asmozkotasun-maila.

d) Berrerortzea edo arau haustea behin baino gehiagotan egitea.

e) Arau haustearen eragin ekonomikoa eta soziala.

**2.** Prozedura hasarazi zuten akatsak guztiz zuzenduta daudela egiaztatzen bada, kontuan hartzeko modukoa izango da hori, zehapena balioesteko eta graduatzeko orduan. Zuzenbidean balio duen edozein bide erabil daiteke egiaztapena egiteko, baina instantziaren ebazpena eman aurretik egin behar da, betiere pertsona edo erakunde arau hauslearen ekimenez.

### **71. artikulua - Litezkeen kalteengatiko erantzukizuna**

Hala badagokio aplika litezkeen neurri zuzentzaileei kalterik egin gabe, erabiltzaileen ardura da zentroko instalazioetan, altzarietan edo materialean edo beste erabiltzaileen ondasunetan sortutako kaltea konpontzea, nahita edo zabarkeria larriagatik, bizikidetasun-arauen aurkako jokabide baten ondorioz, sortu badira.

### **72. artikulua - Preskripzio-araubidea**

**1.** Arau hausteak epe hauetan preskribatuko dira, arau haustea egin den egunetik zenbatzen hasita:

a) Arau hauste oso astunak, lau urtetan.

b) Arau hauste astunak, hiru urtetan.

c) Arau hauste arinak, urtebetean.

**2.** Zehapenak epe hauetan preskribatuko dira, zehapena ezartzen duen ebazpena irmo bihurtu eta biharamunetik zenbatzen hasita:

a) Arau hauste oso astunengatiko zehapenak, lau urtetan.

b) Arau hauste astunengatiko zehapenak, hiru urtetan.

c) Arau hauste arinengatiko zehapenak, urtebetean.

### III. KAPITULUA ZEHAPEN-PROZEDURA

#### **73. artikulua - Arau orokorrak**

**1.** Estatutu honetan xedatutako zehapenak horretarako ezarritako prozedura izapidetu ostean eta interesdunari entzunaldia ematearen, ekonomiaren, arintasunaren eta sumariotasunaren printzipioekin bat etorritz ezarriko dira.

**2.** Zehapen-prozedura lege hauetako xedapenekin bat etorritz izapidetuko da, 39/2015 Legeak eragiten ez dien alderdietan: urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearena, otsailaren 20ko 2/1998 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa; eta maiatzaren 30eko 17/1993 Foru Araua, Arabako Foru Aldundiaren zigortze erregimena arautzen duena.

#### **74. artikulua - Batzordeak jokabidea egiaztatzea eta haren izaera eta larritasuna zehaztea**

Aurreko ataletan xedatutakoaren arabera arau hauste gisa tipifikatu ahal den egitate bat gobernu batzarraren aurrean salatutakoan, batzar horrek egitatearen egiazkotasunari buruzko lehen egiaztapena egingo du eta bi hereneko gehiengoaz zera erabakiko du:

a) Lehenik, egitatearen izaera, larritasuna zehazteko asmoz.

b) Bigarrenik, salaketa Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Kudeaketako Zuzendaritzara bidali behar den.

c) Eta, azkenik, erabiltzaileen osotasun fisikorako berehalako arriskua dakarten kasuetan, eta erabateko salbuespenez, zentroko zuzendaritzari kaute-lazko neurriak hartzea proposatuko dio.

#### **75. artikulua - Zehapenak aplikatzea**

**1.** Arau haustea arina denean, gobernu batzarrak erabaki beharko du ezarri beharreko zehapena, interesdunari aurretik hitzordua eta entzunaldia emanda. Hala ere, zentroko zuzendariak erabiltzailea ahoz zentzarazi ahalko du, entzunaldia eman eta gero, eta ondoren gobernu batzarrari horren berri emango dio.

**2.** Arau haustea astuna edo oso astuna denean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Kudeaketako Zuzendaritzak bideratzaile bat izendatuko du;

horrek, ahalik eta lasterren, egokia den ikerketa egingo du, indarrean dagoen araudiaren arabera bidezkoa iruditzen zaion proposamena egiteko asmoz, interesdunari eta gobernu batzarrari entzun eta gero. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Kudeaketako Zuzendaritzak ebazpenaren berri emango dio gobernu batzarrari, horren bi kopia erantsiz; horietako bat interesdunari bidaliko dio batzarrak, hartu-agiriarekin.

**3.** Nolanahi ere, isunak ezartzea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Kudeaketako Zuzendaritzaren eskumena izango da, arau haustea arina, astuna zein oso astuna izan.

#### **76. artikulua - Jurisdikzio-ordena penalarekiko harremanak**

Espedientea izapidetu bitartean edozein unetan zehazten bada arau haustea eratzten duten egitateak Kode Penalean tipifikatuta egon daitezkeela, Fisikaltzari jakinarazi beharko zaio. Bitartean, zehapen-espedientearen izapidetzea eten egin beharko da, dagokion ebazpen judiziala eman arte. Hori, behin-behineko neurri egokiak eta egitateen arabekoak hartzeko aukerari kalterik egin gabe.

#### **77. artikulua - Errekurtsoak**

**1.** Zentroko zuzendaritzak edo gobernu batzarrak emandako egintzek arau hauste arinagatik zehapena ezartzen badute, erabiltzaileek horien aurka Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Kudeaketako Zuzendaritzan jarri ahalko dute gora jotzeko errekurtsua.

**2.** Kudeaketako Zuzendaritzak emandako egintzek arau hauste astun edo oso astunagatik zehapena ezartzen badute edo arau hauste arin, astun edo oso astunagatik isuna ezartzen badute, erabiltzaileek horien aurka Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluaren aurrean jarri ahalko dute gora jotzeko errekurtsua.

#### **78. artikulua - Zehapenak bete beharrekoak izatea**

Arau honen xede diren gaietan ezarritako zehapenak erabakitzen dituen ebazpenak administrazio-bidean irmotasuna eskuratzen dutenetik izango dira bete beharrekoak.

#### **79. artikulua - Zehapenen erregistroa eta publikotasuna**

**1.** Arau hausteak eta zehapenak erregistro batean sartuko dira; hor, arau haustearen data, subjektu den pertsona edo pertsonak eta ezarritako zehapenaren ezaugarriak jasoko dira.

**2.** Arau hausteen eta zehapenen erregistroa leku ziur batean gorde beharko da, konfidentzialtasunaren printzipioa errespetatuz.



## XEDAPEN GEHIGARRIAK

### **Lehen xedapen gehigarria.- Datuen babesa**

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailak eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak estatutu honetan aipatutako prozeduren esparruan biltzen dituzten datu pertsonalak behar bezala babesten direla ziurtatuko dute, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoan, eta abenduaren 21eko 1520/2007 Errege Dekretuan, lege organiko hori garatzeko araudia onesten duen horretan, xedatutakoaren arabera.

### **Bigarren xedapen gehigarria.- Barne-araubideko araudien onespena.**

Estatutu honen 38. artikuluan aipatutako barne-araubideko araudiak 6 hilabeteko epean prestatu eta egin beharko dira, estatutu hau indarrean sartzen den egunetik zenbatuta.

## XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Foru-dekretu hau indarrean sartzean, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 20ko 19/2001 Foru Dekretua, foru-aldundi honen menpeko adinekoentzako zentzuen estatutua onesten duena, indargabetuta geratuko da, baita hor xedatutakoarekin kontraesanetan dauden maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak ere.

## AZKEN XEDAPENAK

### **Lehenengoa.- Ordezko araubidea.**

**1.** Zentzuen estatutu honek berariaz xedatzen ez duen guztirako, arau haue-tan jasotako xedapenak aplikatuko dira horren ordez:

a) Sarbideari dagokionez, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 22ko 36/2014 Foru Dekretua, arautzen duena mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere.

b) Eskubide eta betebeharreri dagokienez, abenduaren 5eko 12/2008 Legean, gizarte-zerbitzuei buruzkoan, eta apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan, zeinaren bidez onartu baita Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea, jasotako xedapenak.

c) Arau hausteen eta zehapenen araubideari dagokionez, abenduaren 5eko 12/2008 Legea, gizarte-zerbitzuei buruzkoa, eta maiatzaren 30eko 17/1993 Foru Araua, Arabako Foru Aldundiaren zigortze erregimena arautzen duena.

**2.** Oro har, berariazko araei buruz egiten diren aipamenak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak zein foru-aldundikoak izan, une bakoitzean arlo horiei dagokienez indarrean dagoen araudiarekin lotuta egongo dira.

**ERANSKINA**  
**ADINEKOENTZAKO ZENTROETAKO GOBERNU BATZARREAN**  
**ORDEZKARIAK HAUTATZEKO HAUTESKUNDE-ARAUDIA**

### **I. Aplikazio-eremua**

**1.** Adinekoentzako zentrozen estatutuaren 42. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, hauteskunde-araudi hau Arabako Lurralde Historikoko gizarte-zerbitzuen foru-sarean sartutako egoitza, eguneko eta gaueko zentro guztiei aplikatuko zaie, 14 plazako edo gutxiagoko edukiera duten zentroeiei izan ezik, partaidetzarako eskubidea estatutu horretan zehaztutakoez bestelako formulen bidez bermatzea hautatzen dutenean, artikuluko horretako 2. paragrafoan xedatutakoari jarraiki.

**2.** Hauteskunde-araudi hau zentro bakoitzeko gobernu batzarrean erabiltzaileen izenean jardungo duten pertsonak hautatzeko aplikatuko da.

### **II. Hauteskunde-prozesuaren hasiera**

**1.** Hauteskunde-prozesua honela hasiko da:

- a) Erabiltzaileen batzarraren erabakiaz, sortu berri diren zentroetan.
- b) Gobernu batzarraren deialdiaz, gainerako kasuetan; horrek egintza berean erabiltzaileen batzarrari deituko dio.

**2.** Bi kasuetan, erabiltzaileen batzarrak hauteskunde-mahaia eratuko duten pertsonak izendatu beharko ditu.

### **III. Hauteskunde-mahaiaren osaera eta funtzioak**

**1.** Hauteskunde-mahaia kide hauek osatuko dute:

a) Bi erabiltzailek; horretarako, zentroan antzinasun handiena duena eta berriki sartu dena izendatuko dira, eta zuzenean edo, erabakiak hartzeko gaitasunik ez badute, legezko ordezkariaren edo egitatezko zainzailearen bidez jardun ahalko dute.

b) Erreferentziako senide batek, zozketaz izendatuta.

c) Zentroko gizarte-langileak; hauteskunde-mahaiko lehendakari eta idazkari jardungo du.

**2.** Hauteskunde-mahaiak funtzio hauek edukiko ditu:

a) Hauteskunde-araudia betearaztea.

b) Hautagaitzak proposatzea, hautagaitzen aurkezpena onartzea eta, hala badagokio, araudi honen betekizunak betetzen ez dituztenak baztertzea.

c) Esku hartzen duten egintza guztien akta egitea, gobernu batzarra karguaz jabetu arte.

d) Hautesle-errola aurkeztea.

#### IV. Hautesleak eta hautagarriak

1. Deialdiaren egunean zentroan izena emanda duten erabiltzaile guztiak izango dira hautesleak eta zuzenean edo zeharka, legezko ordezkariaren edo egitatezko zaintzailearen bidez, jardun ahalko dute.

2. Deialdiaren egunean zentroan izena emanda duten eta kasuan kasuko hautagaitza aurkezten duten erabiltzaile guztiak izango dira hautagarriak eta zuzenean edo zeharka, legezko ordezkariaren edo egitatezko zaintzailearen bidez, jardun ahalko dute. Hauteskunde-mahaiko kide izendatutako erabiltzaileek ere hautagaiak izan ahalko dira, baina kasu horretan ezingo dira hauteskunde-mahaian geratu eta ordeztu egingo dira.

#### V. Hautagaitzak

1. Zentroko gizarte-langilea haren ustez gobernu batzarrean erabiltzaileen ordezkari jarduteko beharrezkoa den gaitasuna duten erabiltzaileekin harremanetan jarriko da eta hautagai izan nahi duten ala ez galdetuko die. Aurrekoa gorabehera, gizarte-langileak hitz egin ez dien pertsonak ere aurkeztu ahalko dute hautagaitza, zuzenean edo haien ordezkariaren bidez.

2. 1. atalean aipatutako kasu guztietan, gobernu batzarrean egon nahi dutenek hautagaitza idatziz aurkeztu beharko dute hauteskunde-mahaiaren aurrean, 7 egun naturaleko epean, hori eratzen den egunetik aurrera.

3. Aurreko atalean aipatutako 7 eguneko epea igarotakoan, 24 orduko epea izango du hautagai-zerrenda onesteko eta zerrenda zentroko informazio-taulan jarriko du ikusgai.

#### VI. Gehienezko ordezkari-kopurua

Zentro bakoitzeko gehienezko ordezkari-kopurua taula honetan xedatutakoa izango da, adinekoentzako zentroen estatutuko 49. artikuluan hizpatutakoaren arabera:

Egoiliar edo erabiltzaile kop.	Ordezkari kop.
Gehienez, 50	5
25 egoiliar edo erabiltzaile gehiago edo frakzioa dagoen bakoitzean, ordezkari bat gehituko da, gehienez kopuru honetara heldu arte	8

#### VII. Bozketa

1. Baldin eta hautagaien kopurua eta gobernu batzarrean parte hartu ahal duten gehienezko ordezkarien kopurua berdinak badira, ez da bozketarik egingo; pertsona horiek automatikoki gobernu batzarreko kide izendatuko dira, eta, horrela, hauteskunde-prozesua bukatu egingo da.

**2.** Gainerako kasuetan, bozketa 3 eguneko epean egingo da, hautagaitzak argitaratzen diren egunetik. Hauteskundeak dagozkion zentroan bertan egin beharko da. Horrela ezarritako data asteburu edo jaiegun batekin bat badator, lehen egun baliodunera arte atzeratuko da.

**3.** Hautesleak hauteskunde-mahaira joango dira, banaka edo ordezkaria-rekin edo erreferentziako senidearekin. Mahaiko idazkariak haien nortasuna eta egoiliar edo erabiltzaile diren egiaztatuko ditu.

**4.** Boto-paperetan aldarrikatutako hautagaien izenak agertuko dira, abizen alfabeto-ordenan; aurrean lauki zuri bat izango dute, boto-emaileak adieraz dezan nortzuei ematen dien botoa. Nolanahi ere, zentro bakoitzean gehienez egon daitezkeen ordezkari adina izen adierazi beharko ditu, araudi honen VI. atalean xedatutakoaren arabera.

**5.** Hauteskunde-mahaiko idazkariak boto-emailearen izen-abizenak idatziko ditu zerrendan, boto-kontaktetan beharrezkoak diren egiaztapenak burutzeko. Halaber, bilkuraren akta egingo du.

### **VIII. Boto-kontakteta eta gobernu batzarreko karguen esleipena**

**1.** Boto-kontakteta jendaurrean egingo da, hautestontziak itxi ostean, eta ez da etengo ezinbesteko kasuetan izan ezik.

**2.** Boto-kontakteta egiteko, hauteskunde-mahaiko lehendakariak hautestontziko gutun-azalak aterako ditu, banan-banan, bozkatutako hautagaien izenak ozenki irakurriko ditu eta boto-paper bakoitza, irakurri ostean, mahaiko gainerrako kideei erakutsiko die.

**3.** Botoak errazago zenbatzeko, aurretik prestatutako hautagaien banakako orrietan idatziko dira.

**4.** Bozkatutako hautagaien kopurua eta ezarritako gehienezko kopurua berdinak diren boto-orriak joko dira balioduntzat.

**5.** Baliogabeak izango dira ezarritako kopurua baino hautagai gehiago, ezarritako gehienezko kopurua baino gutxiago adierazten dituztenak eta zuzenketak edo ezabaketak dituztenak.

**6.** Hauteskunde-mahaiko idazkariak bilkuraren akta egingo du (hiru kopia), eta mahaiko kide guztiek sinatuko dute.

**7.** Boto-kontakteta amaitutakoan bi hautagai berdinduta egonez gero, berdinketa hausteko irizpide hauek aplikatuko dira, elkarren segidan.

- Biek gobernu batzarrean beren kabuz jardun ahal badute, zentroan antzinateasun handiena duen pertsonaren alde.
- Batek soilik gobernu batzarrean bere kabuz jardun ahal badu, haren alde.
- Batek ere ezin badu gobernu batzarrean bere kabuz jardun, zentroan antzinateasun handiena duen pertsonaren alde.

**8.** Mahaiko lehendakariak bozketaren behin betiko emaitza irakurriko du eta aukeratutako hautagaiak izendatuko ditu.

**9.** Aktaren bi ale zentroan geratuko dira, eta horietako bat iragarki-taulan jarriko da ikusgai bozketak amaitu eta 48 ordu igarotakoan. Hirugarren alea GOFeko Adintsuen Arloko Zuzendariordeztzara bidaliko da, foru-titulartasuneko zentroetan, edo zentroa menpe dagoen erakundera, gainerako kasuetan.

### **IX. Gobernu batzarraren eraketa eta lehendakariaren, lehendakariordearen eta idazkariaren hautaketa**

**1.** Gobernu batzarra hauteskundera egin ondoko bosgarren egun baliodu-nean eratu da, bilkura publikoan.

**2.** Gobernu batzarra eratutakoan, lehendakari- eta lehendakariorde-karguak aukeratu dira. Erabiltzaileen ordezkari diren gobernu batzarreko kideak izango dira hautesle eta hautagarriak.

**3.** Lehendakaria eta lehendakariordea hautatzeko, ezkutuko bozketa egingo da. Boto gehien lortu dituen hautagaia izendatuko da lehendakari, eta bozketan bigarren lekua erdietsi duena izango da lehendakariordea.

**4.** Zentroko gizarte-langilea gobernu batzarreko idazkari izendatuko da.

**5.** Lehendakari- eta lehendakariorde-karguak hautatutakoan eta idazkari-kargua izendatutakoan, gobernu batzarra behin betiko eratuta egongo da eta eraketaren akta egingo da.

### **X. Plaza hutsak betetzea**

Baldin eta gobernu batzarraren agintaldian plazaren bat hutsik geratzen bada, gobernu batzarrak bete lezaketzen pertsonak proposatuko ditu. Horiek, onartu ostean, batzarraren agintaldia bukatu arte geratzen den aldiaren bete ahalko dute plaza hutsa.

\* \* \* \* \*